

Elkartearen Aldizkari

2023. 18. zenbakia

- Editoriala
- Concurso fotográfico
- Elkartea
- Literatura
- Iritzia
- Kontsumo
- Bidaiak
- Eskaintzak
ta gehiago



BBK_ ko Jubilatuen eta Pentsiodunen Elkartea

Principe kalea, 5. 505 saila • 48001 BILBO • Tel. 94 425 57 96 • asojubibbk@gmail.com • www.asojubibbk.es



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EDITORIALA

Denbora oso azkar pasatzen da, eta berriro ere hemen gaude, aldizkari honetatik, gure kolektiboa agurtzen Gabon edo Egu-berrien inguruan.

Lasaitasun pixka bateko garaia izan dugu Elkartean, eta programatutako bidaiak eta urrian egin zen Urteko Bazkariak soilik apurtu dute hori; parte-hartze interesgarria izan zen bazkarian, eta bertaratzea saritu genuen, BBKren Klub Sozialean jatordu batzuk zozketatuz eta laranjak oparituz.

Zain gaude Gizarte Segurantzari eta Mutualitateei kotizazio bikoitza egindakoen izenean jarritako erreklamazioek Administrazioaren erantzuna jaso dezaten. Hasiera batean, irailean emaitzak ikusten has gintezkeela jakinarazi ziguten, baina aurkeztutako erreklamazio-andanak, dirudienez, atzeratu egin ditu lanak. Duela gutxi, Bizkaiko Ogasunetik jarri ziren gurekin harremanetan, eta jakinarazi ziguten urtarilean hasiko ginela pixkanaka zuzenketa-jakinarazpenak jasotzen. Espero dezagun horrela izatea, dagoeneko egiaztatu baitugu gure inguruko beste Ogasun batzuetan likidazioak zuzentzen ari direla aspal-ditxotik. Gaiari jarraipena egingo diogu eta saiatuko gara zuei informazioa ematen.

2 Gure inguruan sumatzen dugun lasaitasuna ez da, zoritxarrez, munduan beste toki batzuetan ikusten ari garena. Beti izan dira gatazkak eta arazoak, baina gaur egun Gazako biztanleak bizitzen ari diren egoera latzak gure bihotzak uzurtu eta urratu egiten ditu, eta are gehiago Gabon aurreko egun hauetan. Tribuna honetatik egoera hori gogoratu eta salatu gura dugu, gure samina eta berehalako konponbide baten nahia adieraziz, konponbidea oso zaila eta korapilatsua dela jakin arren. Espero dezagun 2024an gatazka konponbidean sartzea eta bake eta lasaitasun gehiagoko urtea izatea.

Gabon-jai hauetan, onena opa dizuegu zuentzat eta zuen sendikoentzat

EDITORIAL

Pasa el tiempo con una rapidez increíble y ya nos encontramos de nuevo aquí, desde esta Revista, saludando a nuestro colectivo en la proximidad de la Navidad .

Hemos disfrutado de un periodo de relativa tranquilidad en la Asociación, solamente alterado por la celebración de los viajes programados y la Comida Anual que se llevó a cabo en Octubre, con una interesante participación y en la que premiamos la asistencia a la misma, con el sorteo de unas comidas en el Club Social de BBK y el regalo de unas de cajas de naranjas.

Estamos a la espera de que las reclamaciones efectuadas en nombre de los afectados por la doble cotización a Seguridad Social y Mutualidades, obtenga respuesta por parte de la Administración. Aunque inicialmente nos informaron que en Septiembre ya podríamos comenzar a ver resultados, la avalancha de reclamaciones presentadas, por lo visto les ha retrasado. Recientemente nos contactaron desde la Hacienda de Bizkaia para informarnos que en el mes de Enero comenzaremos a recibir paulatinamente las notificación de rectificación. Esperemos que sea así, porque ya hemos comprobado que en otras Haciendas de nuestro entorno ya están rectificando las liquidaciones desde hace tiempo. Estaremos al tanto del tema e intentaremos manteneros informados.

Esta tranquilidad que nosotros percibimos en nuestro entorno, no es la misma que desgraciadamente se observa en el mundo. Siempre existen conflictos y problemas, pero actualmente la terrible situación que está viviendo la población de Gaza encoge nuestros corazones y mucho más en estos momentos pre-navideños. Situación que desde esta tribuna queremos recordar y denunciar, manifestando nuestro dolor y el deseo de una inmediata solución que reconocemos muy difícil y complicada. Esperemos que en el 2024 se solucione el conflicto y sea un año de paz y tranquilidad .

Recibid nuestros mejores deseos para vosotr@s y vuestras familias en estas fiestas navideñas .

Zorionak
eta Urte Berri On!



Arrosa-zuri kolorea

28 urria, 2023 | por Juan Carlos Ruiz de Villa

Pertsona atsegina, ona izan nahi izan nuen.

Maitatu egin nahi izan nuen ezergatik,
maitatu eta maitatua izan baino ez.

Ona izan gura izan nuen, ez ezergatik,
baizik eta ulertzen dudalako
horrelakoa behar dela izan,
maitatu eta maita zaitzatela,
ez egotea liskarrik,
ezta inbidiarik ere.

Oihu ez egiteagatik

ez ezazu pentsa ez naizela zu bezain indartsua.

Ukabilkada bat ez emateagatik
ez pentsa ezin dizudala eman,
Atsegina izateagatik ez pentsa
entregatuta, umiliatuta nagoela.

Gura dudana da
errespetatzea eta errespetatua izatea.

Sentitzen dudana da
bestearenganako maitasuna.

Eta gauza bera nahi nuke neuretzat.

Zubiak eraiki gura ditut.

Harekin baldin banago,
ez du esan nahi
zurekin ez nagoenik.

Bestearekin hitz egiten badut

haren kontra ezer ez dudalako da,
eta zuk ere ez izatea nahi nuke.

Begirunetsua izan gura izan nuen,
atsegin, inuzente eta utopikoa,
ez ezergatik, baizik eta dena
arrosa-zuri kolorez ikusteko,
eta besteek nirekin
ikus dezaten saiatzeko.

Maitasun garbiz maitatu nahi izan nuen.

Nik dena ematen dizut,
zuk ahal duzuna ematen didazu,
baina trabarik gabe, bihotz-bihotzez.
Hitz egin eta entzun ahal izatea
beti onean pentsatuz.

Ni izatea sorbalda

zuk zure penak arintzeko.

Eta berdin zure sorbalda niretzat.

Bizi egin nahi izan nuen, beste barik,
begirune handiz,
mundu garbi batean.

Arrosa-zuri kolorea



2023ko ARGAZKI LEHIAKETA

25 urria, 2023 | por asojubi


IRABAZLEAK

LEHEN SARIA



En el Sagustan

BIGARREN SARIA



Espectro

5

HIRUGARREN SARIA



Lofoten

1. Zer da hipoteka?

Hipoteka-maileguaren kontratuan bi figura juridiko sartzen dira: mai-legua (kontratua) eta hipoteka (berme-eskubide erreala), baina biak banaezinak dira eta erakunde bateratua osatzen dute.

2. Zer da hipoteka kentzea?

Esamolde horrekin, hipoteka-mailegu bat lortzean etxebizitzaren gainean eratutako hipotekaren ezerezte formalaz ari gara.

Behin finantza-erakundeari hipoteka-maileguaren dirua itzulita, kontsumitzailearentzat komenigarria izan daiteke Jabetza Erregistroan ez agertzea etxebizitzak hipoteka bat duela.

3. Zer izapide egin behar dira etxebizitzak hipoteka duela dioen idatzoharra Jabetza Erregistrotik ezabatzeko?

- a) Emandako hipoteka-mailegua ezereztu izanaren ziurtagiria lortzea (banketxean):

Hipoteka-maileguaren zenbatekoa itzuli dela egiaztatuko duen agiria behar da. Horretarako, hipoteka-mailegua eman zuen banku-bulegoan eskatu behar da.

Hipoteka-mailegua itzulita dagoela egiaztatzen duen banku-ziurtagiriak **ez du kostu ekonomikorik interesdunarentzat.**

Banku-ziurtagiri hori ez da hipotekaren idatzoharra Jabetza Erregistroan ezerezte ahalbidetzen duen dokumentu bat, legeak eskritura publikoa notario aurrean egitea eskatzen duelako hipoteka sortu, aldatu edo iraungitzeko, eta Jabetza Erregistroan dokumentu publikoak baino ez direlako sartzen eta inskribatzen.

- 6) Etxebizitzak hipoteka duela dioen erregistro-idatzoharra ezabatu nahi bada, ezinbestekoa da ezerezte-eskritura publikoa formalizatzea eta eskritura publiko hori Jabetza Erregistroan inskribatzea.

- b) Hipoteka-mailegua ezeztatzeko eskritura publikoa izenpetzea (notario-bulegoan):

Kontsumitzaileak nahi duen notario-bulegora jo behar du, erakunde mailegu-emailak emandako hipotekaren ezerezte-ziurtagiriarekin, hipoteka-mailegua ezerezteko eskritura presta dezan. Horretarako behar dituen agiriak adieraziko dizkio notario-bulegoak.

Erakunde mailegu-emailak egiten du eskritura notario-bulegoan, hau da, finantza-erakundearen ordezkaria bakarrik joaten da eta sinatu egiten du, eta kontsumitzaileak ez du parte hartzen.

Hipoteka ezerezteko eskritura publikoaren **kostua kontsumitzaileak hartzen du bere gain oso-osorik.** Notarioaren fakturak dagozkion eskubide eta ordezkarien zenbatekoa zehazten du, eta gogoratu behar da notario guztiek lan berdinegatik (kasu honetan, ezerezteagatik) ordainsari bera kobratzen dutela notario-ordainsari gisa, horien zenbatekoa (arantzela) legeko arau baten bidez araututa baitago, eta notario-bulegoen arteko aldeak honako zerbitzu hauen ondorio izaten dira: kopia baimenduak, kopia sinpleak, folioak, lekukotzak, ordejarriak, erregistro-informazioa, etab.

Komeni da notario-bulegoari jakinaraztea ondorengo izapideak (Ogasuna eta Jabetza Erregistroa) interesdunak berak egingo dituen ala notario-bulegoaren esku uzten diren; kasu horretan, notarioak zenbateko gehigarri bat kobratuko du kudeaketa-gastuengatik.

- c) Hipoteka ezerezteko eskritura publikoaren egintza zergapetzen duen zergaren likidazioa (dagokion Ogasunean):

Hipotekaren ezerezte-eskritura publikoa dagokion Ogasunera eramane behar da, Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari (EJDZ) lotutako eragiketa baita.

Euskal Autonomia Erkidegoan, ohiko etxebizitza erosteko maileguan hartutako hipotekak ezerezte dokumentatzen duen notario-eskritura salbuetsita dago notario-agiriak zergapetzen dituen egintza juridiko dokumentatuen zergatik.

Subjektu pasiboa, hau da, zergapekoa edo tributu-betebeharpekoa, kontsumitzaile hipotekatzaila da, eskritura publikoa bere alde egiten dela ulertzen delako, etxebizitzaren gainean zegoen zama (hipoteka) desagertzean.

- d) Hipotekaren ezerezte inskribatzea (etxebizitzari dagokion Jabetza Erregistroan):

Hipoteka-mailegua ezerezteko eskritura publikoa, EJDZren likidazio-frogagiriarekin batera, etxebizitza inskribatuta dagoen lekuko Jabetza Erregistroa eraman behar da, hipotekaren erregistro-ezerezte inskriba dadin.

Hipotekaren ezereztearen **inskripzioaren kostua** oso-osorik **kontsumitzaile** interesdunari dagokio ordaintzea, ulertzen baita ezerezte-eskriturak karga askatzen duela, eta, horregatik, kontsumitzaile mailegu-hartzailearen alde inskribatzen da.

4. Nork ordaintzen ditu hipoteka ezereztearen ondoriozko gastuak?

Laburbilduz, eta azaldukoaren arabera, hipoteka-mailegua lortu duen (edo hipoteka-mailegu bat aldatzen duen edo maileguan subrogatzen den) kontsumitzaileak eta hipoteka ezereztu nahi duenak bere gain hartu behar ditu hirugarrenei egin beharreko ordainketa guztiak (notario-bulegokoak eta erregistrokoak), hipoteka ezerezteko esku-hartze profesionalagatik ordainsari gisa.

Komeni da gogoraraztea hipoteka ezerezteko beharrezkoak diren notario-, ogasun- eta erregistro-izapideen kudeaketa hipoteka altxatzeko interesa duenak berak egin dezakeela, (bankuaren edo notarioaren) gestoria bati ordaindu behar izan gabe, eta izapidetzea zaindu egin behar dela, kasu honetan, finantza-erakunde mailegu-emailak ezerezte-eskritura publikoaren sinadura bidegabe atzeratu ez dezan (izan ere, batzuetan, entitateak, kudeaketa enkargatzen ez bazaio, notario-sinadura atzeratu egin ohi du, presio-neurri gisa).

5. Zer egin dezakegu hipoteka ezeztatzegatik ordaindutako gastuekin ados ez bagaude?

Legez ezarrita dago kontsumitzaileak bere gain hartzea hipoteka ezereztearen gastuak, eta, oraingoz, justizia-auzitegiek legea aplikatzen dute, ezinezkoa izanik gastu horiek finantza-erakunde mailegu-emailari jasanaraztea.

UCE-EHKBren ustez, hipoteka-ezereztearen gastuak (mailegu-hartzailearen kontura ezartzen da gastu horien ordainketa hipoteka-maileguan) hipoteka-maileguaren beraren zamaren gehigarriak dira, eta justifikaziorik gabeko zergapetze ekonomikoa dira, bai eta abusuzkoa ere kontsumitzailearentzat; izan ere, beretzat zerbitzurik edo onura edo baliagarritasunik ez duten formalitateen ondoriozko kostuak ordaindu behar ditu, erakunde mailegu-emailaren onurarako hipoteka aldeztu erretik eratu izanak sorturiko kostuak.

Ezerezte-gastuen itzulketa judizioz kanpo erreklamatu nahi izanez gero, ordaindu direnak itzultzeko eskaera egin behar da finantza-erakunde mailegu-emailari zuzendutako idazki baten bidez. Idazki hori eskaera entregatu dela egiaztatzen duen edozein modutan bidali behar da (modu pertsonalean edo hartu-agiridun posta arruntaren bidez edo edukiaren ziurtagiria duen burofax modalitatean).



2023 GABONAK PALESTINA



13 abendua, 2023 | **por Juan Carlos Ruiz de Villa**

7

Berriro ere Eguberri edo Gabonak hurbiltzen ari dira, eta Kanaanen, Judean edo Israelen jende ezjakin, etsaitu eta harroak, nork bere Jainko partikularra (Yahveh edo Allah) oihukatuz, eta guztientzat sakratua izan beharko lukeen lurralde batean, elkar hiltzen dihardu, haien borroka bakarrak Mundurako BAKEA bilatu eta lortzea izan beharko lukeenean.

Inor ez dago legitimatuta inori, are gutxiago errugabeei, sufriarazteko edo hiltzeko. "...txiki hauetakoren baten sinesmena galbidean jartzen duenak hobe luke errotarri bat lepotik lotu eta itsasora amilduko balute". Badirudi amorrua, mendekua eta arrazoinamendu eskasa gizateriaren zati batez nagusitu direla, eta gaizto gutxi batzuk gehiengo zintzoa menderatzen ari direla.

Zentzurik gabeko gerra eta sufrimenduen une honetan, gaurkotasun handikoak dira Franzisko aita santuaren hitzak: "Giza familia bakar baten garen kontzientzia indartu behar dugu".

Beraz, lagun maiteok, egun seinalatu hauetan, saia gaitezen gure etxeetan bakea eta adiskidetasuna nagusitu daitezen, besteentzat eskatzen dugun adiskidetze hori gugandik eta gure familietatik has dadin. Jar dezagun bihotzaren alde ona, goza dezagun mahai probetxuzko eta zoragarriaz, eta gure pertsonarik maiteenen konpainiaz, baita jadanik ez daudenez ere, han goitik izarretan gu guztiok zaintzen jarraitzen dute eta.

Belenen jaio zen Ume Jainkoak ekar diezazkigula berriro hain desiratuak ditugun Bakea eta Adiskidetasuna.

Maitasun guztiarekin, Gabon Jai Zoriontsuak eta 2024 Urte Berri oparoa guztiontzat!



BAZKIDEEN URTEROKO BAZKARIA

(laburpena)

2 azaroa, 2023 | por asojubi

8

Joan den ostegunean, urriaren 26an, Elkartearen urteroko bazkaria egin zen 102 ikaskidek parte hartuta. Aldez aurretik eta ekitaldi osagarri gisa, Bilboko Itsas Museoa – ITSASMUSEUM bisitatu zen, eta 65 pertsona bertaratu ziren..

Bazkariari amaiera emateko, zozketa batzuk egin ziren bertaratutako bazkideen artean, eta emaitza hau izan zen:

2 lagunentzako menu berezia BBKren Klub Sozialan

- Inmaculada M.
- José Luis N.
- Mariano M.
- Eduardo V.

Caprichos de la Naturaleza S.L. hornitzailearen laranja-kutxa

- Juan Antonio Glez.
- Txetxu S.

Beste zozketa gehigarri bat egin zen gure erkidegotik kanpo bizitzeagatik gure urteko bazkarira joateko erraztasunik izan ez zuten bazkideen artean, eta emaitza hau izan zen:

Caprichos de la Naturaleza S.L. hornitzailearen laranja-kutxa

- Marisa Pérez (Madrid)
- Antonio Alonso (Castro)

**HEMEN UZTEN DIZKIZUEGU
OROIMENERAKO ARGAZKI BATZUK**





Compra naranjas y mandarinas del árbol a tu mesa

laranjen eta mandارينen eskaintza (2023-2024)

La empresa Caprichos de la Naturaleza, S.L. nos ha hecho llegar nuevamente una oferta especial para nuestros asociados referida a sus naranjas (desde finales de octubre) y mandarinas (ya disponibles) consistente en un descuento del **8% sobre su precio de venta por internet**.

Se trata de productos de la zona de Cullera (Valencia) de gran calidad que pasan del árbol a nuestra casa en 48 horas.

Las compras se pueden hacer a través de su página <https://caprichosdelanaturaleza.es/> incluyendo el código promocional que os hemos enviado por correo electrónico (el mismo que el año pasado).

Queremos resaltar que, dada la influencia del coste del transporte, el precio para pedidos de 15 kilos o más, tanto en naranjas y mandarinas como en la combinación de ambas, es mucho más interesante. Además, al ser producto natural, sin tratamientos ni aditivos, es de más fácil y larga su conservación.

«Para que nuestra fruta llegue a tu casa recién cogida del árbol, realizamos las entregas de las cajas de naranjas y mandarinas los martes, miércoles, jueves y viernes. **Los gastos de envío son gratuitos en la península.** En caso de realizar tu pedido fuera de España o en las islas, escribenos un email (pedidos@caprichosdelanaturaleza.es) o llámanos por teléfono (601 052 415) y calcularemos el coste del envío.»

11

LOS 10 ARTÍCULOS MÁS VOTADOS, POR LOS LECTORES

Artikulu bozkatuenak

Duela hilabete batzuk “atsegin dut” motako ikono bat sartu genuen, irakurleek (bazkideak izan ala ez) bozkatu ahala izan zezaten artikulu irakurtzea gustatu ote zitzaien.

Hona hemen 10 artikulu bozkatuenen zerrenda:

ARTÍCULO

- Color blanco rosa
- El mulito
- Ausencia
- Heredero impertinente
- El valor del tiempo libre (reeditado)
- Le Château d’Abbadie (Hendaye)
- La noche de Todos los Santos
- Promoción del Ochenta y dos
- Viaje a países Bálticos y Helsinki (17 a 28 de junio 2023)

ARTÍKULU

- Arrosa-zuri kolorea
- Mandar Txikia
- Absentzia
- Oinordeko desegokia
- Aisialdiaren balioa (berrargitaratua)
- Abadia gaztelua (Hendaia)
- Domu Santu Gauda
- Laurogeita Biko Promozioa
- Bidaia Baltikoko Herrialdeetara eta Helsinkira (2023ko ekainaren 17tik 28ra)

Gabonak etxe arrotzean

7 abendua, 2023 | por Fernando Urien

Gelako atea irekita dago, eta bere aurrean koloretako argiak islatzen dira paretan; pinturak une batetik bestera kolorea aldatuko balu bezala. Gelako zorua, terrazo hotza, garbitu berri dute. Ni besaulkian eserita nago, nire eskuinean metalezko ohe egin berri bat dago, bere gainean oxigeno-hartunea eta huts-sistema daude, pareta urdin argiz margotuta dago, distira barik. Nire atzean mahai txiki bat dago eta, ohearen beste aldetik, mendia ikusten da leihotik.

Gizon bat sartu eta irribarretsu begiratu dit, neskato bat du alboan. Hainbeste hurbildu denez, izutu egin naiz eta irribarre egin dut. Neskatoak etengabe begiratzen dit.

— Badakizu nor naizen?—galdetu dit arrotzak irribarre egiteari utzi barik. Ile beltza du, motza eta marrarekin orraztua, bekainak lodiak ditu eta irribarrea etenbakoa. Goibel-itxura egin dut. Neskatoa zerbait bilatzen ari da ohe-mahaiko tiraderan, edo agian ez du ezer bilatuko, baina umeak horrelakoak dira, begiluzeak.

—Ez dakizu nor naizen? —galdetu dit berriro helduak, altxatzen laguntzeko besapetik hartzen nauen bitartean. Neskatoak orrazi txiki bat aurkitu du eta bere ilea orrazten ari da. Gabon-kanta baten musika datorkigu koridoretik: “Olentzero joan zaigu...”.

—“Mendira lanera...” —abestu dut ahopean, konturatu barik.

— Al! Kanta hori gogoan duzu. Baina ez dakizu nor naizen ni, ezta nor den neskato hau ere.

Berriro irribarre egin dut goibel-itxura eginez, Gabon-kanta ahopean abesten jarraitzen dudana bitartean.

— Zure semea naiz, Roberto. Ez zara gogoratzen?

Nire semea? Besoetan hartzen nuenean, semea gura barik lokartzen zen nire sorbaldan. Oraindik gogoan dut haren buru txikia nire bular gainean. Ilea beti motz zeraman, belarriak estaltzen zizkion arren. Fortunatak horrela moztzen zion, gopor iletu bat balitz bezala zetazko haridun kasko bigun baten itxurarekin. Hari gustatzen zitzaizkion Gabon-kantak, egia da, eta hostozko pastelak...

—Etxera eroango zaitut Gabonak pasatzera. Ondo iruditzen zaizu?

Etxera... Fortu barraskiloak prestatzen ariko da... Ondo prestatzen ditu, niri barraskiloak ez zaizkit gustatzen, baina bai saltsa, hark egiten duena. Zenbat gautan ohartu naizen falta zaitudala! Zure irribarrea gogoratzen dut mendian behera jaisten zinean zure aitaren ahuntzak erakusteko. Gogoan dut zure ilearen dantza, gonaren konpasean, lasterka egiten zenuenean. Haizeak

barre egiten zuen larru gorritzko zure ezpainenetan. Fortu, non zabiltza? Atsegin dut zure musuen kolorea, zure irisaren xuxurla, zure ezpainen lurrina, zure bularren ahogozoa...

—Tira, jantzi beroki hau, hotz egiten du-eta. Eta goazen autora.

Gizonak soingainekoa jartzen didan bitartean, neskatoaren ilea ukitu dut. Robertorena bezalakoa da, leuna eta garbia. Nire atzamarra pasatu dizkiodan tokian, hark bere eskua pasatu du berriro txukuntzeko. Gorantz begiratu eta esan du: “Kaixo, aitite”.

Nik ez nuen aitaita ezagutu, gerran hil omen zen, Errepublikaren alde borrokan. Nire ama beti izan zen errepublikarra, bandera xifonierraren tiraderaren azpian zeukan ezkutatuta. Gogoan dut fisikako irakaslearen aurpegia, galdetu nionean ea zergatik egin behar den indarka kaka egitean. Amari deitu zion eta amak errieta egin zidan.

Autora sartu eta berehala iritsi gara etxera. Barrura sartzean, jende askok irribarrez agurtu nau, nik ere irribarre egin dut. Hau ez da nire etxea, desberdina da. Sarrerako aterki-ontzia falta da. Bertan egoten zen beti nire aitagarrebaren, Forturen aitaren, makila... Non dago? Ez dut ikusten.

Jakiz betetako mahai baten aurrean eseri naute, baina ez dago barraskilorik. Ez, hau ez da nire etxea. Jendeak adeitasunez tratatzen nau eta denek galdetzen didate ea ezagutzen ditudan. Ez dakit, zerbait iruditzen zait..., baina hain da bitxia dena! Ez dut dena nahasten dabiltzan ume horietako inor ezagutzen. Jatorrak dira. Platerean jarri didaten guztia jan dut. Zer egingo dut? Jan dezadan tematzen dira, bizitza honetan garrantzitsue-na balitz bezala. Non dago Fortu? Ez dakit, hau ez da nire etxea. Gelaren batetik datorren musika entzuten da: “Olentzero joan zaigu...”

— “Mendira lanera...” —erantzun dut. Denek barre egin dute. “Begira, gogoratzen da” errepikatzen dute behin eta berriz. Orain nirekin batera abesten dute. Dibertigarria da.

—Tira, aitite, goazen ohera! —eta emakume batek besotik heldu dit laguntzeko. Gela arrotz batean sartu gara. Panpinaz betetako apalak daude. Errezelek kolore asko dituzte eta lanparak izar-sorta bat dirudi. Emakumeak janzten lagundu dit eta ohean sartu naiz. Musu bat eman eta “gabon” esan dit. Nik irribarre egin dut. Zer egingo dut? Ez dut ezer ulertzen.

Gaueko iluntasun eta isiltasunaren artean, Fortunata entzun dut... barraskilo usaina du, abestu egiten du... Zer ondo! Berriro etxean.

Hara, hara...

hemen ezin joan hondartzara!

2 abendua, 2023 | por Esther Sancho Urbina

Itsasoa maite dut, bihotz-bihotzez, batez ere Kantauri itsasoa. Mediterranea itsaso deskafeinatua iruditzen zait, ura bero dagoelako, marmoka asko daudelako eta ia ez dagoelako olaturik, eta ni maiteminduta nago olatuez goren-gorenaraino. Mozkote bat nintzenetik, nire familia ugaria Gorlizera joaten zen udan. Garai hartan, turistek oraindik ez zuten herria aurkitu, ezta eraikuntza-enpresek inbaditu ere, nahiz eta urte batzuk geroago herri preziaitu haren itxura asko aldatu zuten. Hondartzara jaisten ginenean, amak (aitetek beharrean jarraitzen zuten Bilbon) taldetxoetan jartzen ziren, aulkiak eguzkiari begira, eta umeok gure kasa uzten gintuzten, baina arau jakin batzuekin.

Nire ama digestio-aldiak errespetatzeko teoriaren jarraitzaile leiala zen, baina bertsiorik zorrotzenez: bi ordu eta erdi gosalduta ondoren eta hiru ordu bazkalostean. Baina niretzat tortura zen hondartzara jaitea, itsasoa ikustea eta uretan ezin sartzea, eta mundu guztiak daki ez dagoela ondo torturatzea, batez ere urre-koloreko ile kizkurrak dituen neskato bat, beraz egunero-egunero errepikatzen zen eszena bera: amari bainatzera joateko baimena eskatzen nion, berak 'oraindik ez' erantzuten zuen, gogaikarri jartzen nintzen, oso gogaikarri, eta esaten nion oinak busti besterik ez nuela egingo. Azkenean amore ematen zuen, eta nik frogatzen nuen 'oinak... besterik ez' kontzeptua ez nuela batere ondo ikasia. Erabat bustita nengoenean, amari galdetzen nion ea bainua har nezakeen, eta amak begiratu eta esaten zidan: "Baina erabat bustita zaude-eta!", nik erantzuten nion ez zela nire errua, olatu batek busti ninduela. Ama desesperatu egiten zen, nik ez niolako jaramonik egiten, eta ezin zuen nirekin burutu. Handik aurrera ez nintzen uretatik irteten.

Gorlizen ikasi nuen neuk bakarrik igeri egiten eta olatuak hartzen, bereizten zein saltatu nezakeen gainetik, zeinek irauliko ninduen neuk azpitik pasatu ezean, eta zeinek emango zidan aukera ur-bazterreraino iristeko. Erresaka handia edo txikia dagoen zelan jakin ikasi nuen, eta itsasoa, bere ur-las-terrak eta indarra errespetatzen ikasi nuen. Kostatu zitzaidan, ur asko irentsi nuen, hondarrez bete nintzen azken kizkurre-raino, eta sekulako iraulkatzeak jasan nituen, baina hori da maitasun handiek dutena, ahalegin handiko istorioak izaten dituztela atzetik. Gainera, egun haietan, sorosleak gure neba zaharrenak izaten ziren, unibertsitate-ikasleak, Gurutze Gorriaren ikastaroren bat egindakoak, eta itsasoak hondartza irensteko mehatxua egiten bazuen soilik jartzen zuten bandera gorria. Abantaila zen olatu handiekin bainatzen ginela, baita erresakarekin ere; gaur egun, egoera haiek bandera gorrikoak izango lirateke argi eta garbi, baina itsasoari buruz asko ikasteko aukera eman ziguten.

Urteak joan ahala, itsasoarekiko nire maitasuna ez zen batere gutxitu, eta maitemindu ninduten beste hondartza batzuk aurkitu nituen, Laida edo Noja, esaterako. Negan, igerileku estalietan igeri eginez kentzen nuen itsasoaren beharizana, baina inoiz ez zen gauza bera izan. Igerileku batean, ura hilda dago eta kloro-usain sarkorra uzten du larruazalean; itsasoa, berriz, bizirik dago, bere kasa mugitzen da, eta haren adiskidetasuna lortzen baduzu, kulunkatu egiten zaitu. Itsasoa batzuentzat atsegi-na bezain beldurgarria da besteentzat.

Baina itsasoarekiko dudak maitasuna hain handia bada, zelan amaitu ahal izan dut Bilbotik ehunka kilometrora dagoen leku batean bizitzen? Eta hara, hara, hemen ezin joan hondartzara!

Senarrak eta biok beti pentsatu izan genuen erretiroa hartutakoan gure alaba bizi zen tokitik hurbil bizitzera joango ginela, alaba baita, azken batean, daukagun gauzarik baliotsuena, baina lana aurkitu zuen Madrilén, eta hara joateko, puf! batere gogorik ez guk. Hiria ederra da, baina handiegia, distantziak izugarriak dira, tira, ez gintuen konbentzitzen eta Madril inguruko herrietan ibilaldiak eginez, Alcalá de Henares topatu genuen. Hemen tarteki bat egin behar dut eta barkamena eskatu 'herri' deitzeagatik. Hiri bat da, eta bertakoak oso harro daude, eta ez zaie batere gustatzen 'herri' bat dela esatea, nahiz eta zu oso Bilbokoa izan. Kontua da gure lan-bizitza amaitu zenean, Begoñako pisu ederra saldu, puskak hartu eta Alcalá de Henaresera joan ginela bizitzera. Bilbon igaro genuen azken egunean, paperak amaitzen ari ginela, Laidara bisita egin genuen, eta aitortu beharra dut malko txiki askok ihes egin zizkidatela, banekielako hartatik guztitik urruntzen ari nintzela eta turista gisa bakarrik itzuliko nintzela.

Alcalá de Henares hiri liluragarria da, eraikin historikoz josia, eta bertako alde zaharrean sartzen zarenean, badirudi denboran atzera egiten duzula. Alcalako gauzarik onenetako bat jendea da, beste inor baino abegikorragoa eta atseginagoa. Turismo-helmuga garrantzitsua dela jakinda, tradizio bihurtu da kultur jarduerak kalean egitea, eta ez dago ezer hoberik igande batean paseatzera atera eta Kale Nagusia magoz, musikariz, dantzariz edo Erdi Aroko azokaz beteta aurkitzea baino.

Itsasoaren falta sumatzen jarraitzen dut, hemen ez dago hondartzara joaterik, baina pozik bizi naiz besoak zabalik hartu nauen hiri honetan, eta oso handia ez den arren, urbanizazioan igerilekua daukat, eta, batez ere, alaba, niregandik oso gertu bizi dena.



Oinordeko desegokia

Kanpotik etorriko da etxetik botako zaituena

18 azaroa, 2023 | por Fernando Urien

Leonor Rosembourg abenduaren hamahiruan hil zen azalore-betekada baten ondorioz. Hori esaten zuten behintzat. Leonor Rosembourgek gantzak gainezka zituen, bular neurrigabeak eta atsedean hartzeko bi aulki behar zituzten ipurmasailak. Behin azaloreak pisua jaisteko zituen onuren berri eman bide zioten, eta hainbestearainokoa zen liraintzeko zuen obsesioa, ezen azken aldian haren mahaian ez baitzen zerbitzatzen aza hori ez zen beste jakirik. Horregatik ohikoa zen gonbidatuek hamaika aitzakia asmatu eta errepikatzea haren ospakizunetara ez joateko; azalore-errezeta berrien beldur ziren guztiak.

Rosembourg-tarrena familia aberatsa zen, ondasun garrantzitsuak zituen, eta zaputxu samarra. Leonor ospetsuak eta Hans Leandro Leman bankari entzutetsuak osatutako bikoteak seme bakarra izan zuen, Alfonso Leman Rosembourg, mutil urduri eta oso-oso argala. Hain zegoen haragi gabe, ezen hezurren markak nabarmentzen baitzitzaizkion aurpegi zurbilean, eta ikatz beltzeko bibote eta kokospekoak eta beti ongi ebakitako ile lisoak areagotzen zioten zurbiltasuna. Traje ilunak janzten zituen, eta, horrek, bere ibilera isilarekin batera, aire goibela ematen zion etxeko korridoreetan barrena ibiltzen zenean. Familiako ume mimatua izan zen, edozerengatik protesta egiten zuena nahiko emakume-ahotsarekin, baina orduan denek barre egin eta inork ez zion jaramonik egiten.

Egun hartan, Leonor Rosembourgen hiletan, eliza bete-bete zegoen, eta eliztarrak lehian zebiltzan banku libreak hartzeko. Ez zen harritzekoa; izan ere, aspaldiko leinuko eta ondare handiko familia zen, eta, haien berekoikeria eta zekenkeriak han zeuden askori mesfidantza eta aurkakotasuna eragin arren, denak lehian zebiltzan gonbidatuen zerrendan agertze hutsagatik bakarrik. Beraz, goi-gizarteko gaina eta lorea bertan zegoenez, goi-mailako jostintzako soinekoen, bitxi distiratsuen eta harrokeria iraingarrien erakusketa bihurtu zen zeremonia.

Handitasun eta aberastasun-lehia haren guztiaren artean, aldaka zabaleko mutil txiki bat nabarmentzen zen; azala beltzarana zuen, eta buruan ile kizkur eta nahas-nahasia zuen oparo. Urratutako galtza bakeroak eta jertse higatua zituen soinean, hura ere hainbat urraturekin. Gaztea elizaren atzeko banku batean zegoen, non isiltasunik ezak zeremoniarekiko begirunea galtzen zuela baitzirudien.

Zerbitzuko pertsona bat, hileta ospetsuan norbait hain deigarria ikusirik, arrotzarengana hurbildu zen.

– Barka iezadazu, zeremoniaz nahastu egin zara agian. Leonor Rosembourg andre ospetsuaren ahaidea zara?

– Ni?– erantzun zion feligres arloreak harrituta.

– Bai, zu. Ez duzu ikusten zeremonia hau pribatua dela?

– Barkatu –erantzun zion gazteak gizalegez–, hildakoaren semea nauzu.

Eszenatik hurbil zeuden pertsona batzuk harrituta geratu ziren hark esandakoa entzutean. Txutxu-mutxuak aulkien artean zabaldu ziren, harri bat urmaelean erortzean sortzen diren ur-uhinak bezala. Zerbitzaria, hitzik esan barik, elizan Alfonso Leman Rosembourg jauna zegoen lehen jarlekuetara joan zen, han zegoen hildakoaren seme (ordura arte!) bakarra eta, jaunaren belarrira ezpainak hurbilduz, bisitari arrotzak esandakoa errepikatu zion.

Alfonso bat-batean zutitu zen, eta, arin-arin baina neurria galdu gabe, kaperaren atzealdera joan zen, eta haren aurretik bere takoi solemneek marmol gogorraren kontra egiten zuten zarata zihoan. Ile nahasiko gaztearengana hurbiltzean, hark ezagutu egin zuen, eta, agurtzera zetorkiola pentsatuz, txukun-txukun zegoen Alfonso besarkatu zuen ozenki oihukatuz:

– Anaia, anaia!

Eliztarrek, harriturik, ez baitzuten inoiz anaiarik zeukanik entzun, eta are gutxiago halako piurako bat izan zitekeenik, familiaren topaketa-gunera begiratu zuten. Alfonsok bisitariari bultza egiten zion bere lepotik aldendu zedin, baina mutil baldar eta potolo hura musu ematen saiatzen zen, estu-estu eginez ito behar balu bezala.

– Nik ez dut anaiarik!–eta Alfonsoren emakume-oihuak harritzko horma hotzen kontra egin zuen oihartzun, marmarrean hasi ziren eliztarren arreta erakarritz.

– Baietz, Alfonso, zure anaia Abelardo naiz! Ez duzu ikusten elkarren antz handia dugula?

– Baina zelako txorakeriak esaten dituzun! Berrito diotsut ez dudala anaiarik.

Orduan, gazte trauskilak ohar zimurtu bat atera zuen poltsikotik, zabaldu eta Alfonsori erakutsi zion. Notarioaren gutun bat zen, herentzia banatzeko deia egiten ziona.

Abelardok poltsikotik ateratako ohar zimur eta ia okre hartan, haren jatorria eta Leonor andrearen nahia zehazten ziren, hau da, bera hiltzean bi semeek elkar ezagutu eta errautsak airera barreia zitzatela.

Une hartan, isiltasuna zabaldu zen erdiko pasillotik barrena, alboko habearteak zeharkatu zituen, zutabe hotzetan gora igo zen ganga eta absideraino, eta handik ihes egin zuen, xurrutarrien ahotik irten eta kanpoan desagertu zen arte. Alfonso paperari begira geratu zen, denbora gelditu egin balitz bezala. Bitartean, gazte arlote zarpail hark batera eta bestera begiratu eta berari beha zeudenak agurtzen zituen.

Sinesgaiztasunak amore eman behar izan zuen, argi eta garbi ikusten baitzen txakur gonbidatu hura Abelardo Maroto Rosembourg zela, bere osabarena zen landetxe bakarti batean Leonor zaindu zuen laborari baten semea, anderea elgorria sendatzen joan zelarik etxe hartara. Leonorrek haren existentzia ezkutatu gura izan zuen arren, inguruko guztiek “elgorriaren semea” esanez aipatzen zuten hura, lizunkeriaren ordeztu.

gaixotasunaren pikorta edo grano bat balitz legez. Erditu bezain laster errefusatu egin zuen. Ez zuen inoiz onartu nekazariaren seme txiker eta potoloa berea ere bazela, baina, bizitzaren azkenean, erruduntasun-aldi bat izan zuen, eta familian zegokion lekuan sartzea erabaki zuen.

Alfonso abailduta zegoen, 24 ordu baino gutxiagoan anaia bat agertu baitzitzaion, eta gorroto zion arunta, paria eta musukatzaile itsaskorra zelako; gainera, ziur zegoen izaki hura han zegoela herentziaren bere eskubideak eskatzeko, eta, hori gutxi balitz, elkarrekin joan behar zuten errautsak airean barreiatzera. Baina ez zen ausartu amaren gurariei kontra egiten, azken finean, maite izan zuen eta min eman baitzion hura galtzeak. Beraz, hiletaren ostean, bi semeak muino batera igo ziren, eta handik familiaren jabego zabalak ikus zitezkeen.

Aurretik, amaren errautsak zeuzkan ontzia eskuetan zuela, Alfonso zihoan; haren atzetik anaia, etengabe berbetan. Behin gailurrera iritsita, beraien ondare ziren lurra ikusi zituzten, eta Abelardok, eskua bere senide dotorearen sorbaldan jarrita, esan zion:

- Hara!, anaia bat izatea ere. Nork esango zuen horrelakorik?
- Horixe bera galdetzen diot neure buruari. Nork esango zuen horrelakorik?—erantzun zion Alfonsok, haurride itsaskor harengandik libratu nahian.

Baina Abelardok, besarkadarekiko bestearen biguina jolastatzat hartuta, ontzia kendu zion eskuetatik, eta ireki egin zuen errautsak airean barreiatuz, barre artean oihu eginez:

- Bota ezak hori behingoz, motel!

Anaiaren bultzadaz oreka galduta, Alfonso muinoan behera erortzeko zorian egon zen. Une hartan, haize-bolada bat altxatu zen, eta hark erabat eraitsi zuen ia. Haizeak Leonor Rosembourgen errautsak nahasi zituen, hautsezko laino ilun bat sortuz, beraien kontra itzuli zena. Alfonsok, amaren errautsetatik libratzeko ahaleginean, bizkarra eman zion haizeari, ahal zuen moduan. Abelardok, ordea, begiak itxi eta Leonorren errautsak maitasun osoz hartu zituen aurpegian, kontrako egoera harengatik barre egiten zuen bitartean.

- Baina zergatik egiten duzu zuk barre?—errieta egin zion, ozpinduta, Alfonsok anaiari.
- Ixo —erantzun zion algaraka Abelardok—, izterrezurraren zati bat irentsi dudala uste dut.
- Agg! Ergela zara gero! Oso gaixorik egongo zen nire ama zu bezalako zerbaitez erditzeko. Elgorria baino txarragoa zara.

Azken esaldi hori Alfonsoren eztarritik txilibitu-ahotsez atera zen, eta Abelardori algaraka amaigabeak eragin zizkion emakume-ahots hark. Alfonsok, bere onetik aterata, pausoa bizkortu zuen, etengabe hizketan jarraitzen zion eta bera haserretu zenean atera zitzaion ahots zorrotzagatik barre batean zegoen anaiarengandik urrundu nahirik.

Gau hartan Alfonsok ez zuen ondo lo egin. Anaia aurkitu berriarekin herentzia banatzeak grazia handirik egiten ez bazion ere, ez zen hori izan halako loezinaren arrazoia, baizik eta amak, antza denez, izan zuen munstro hura jasan beharra. Amets egin zuen anaiak besarkatu egiten zuela, berak arrakastarik gabe aurre egiten zion bitartean; elkarrekin lubeta batean behera erortzen ziren, eta berak txilibitu-ahotsez oihu egiten zuen laguntza eske, eta horrek Abelardoren

barre-algarak eragiten zituen, aurpegira tu egiten zizkion barre-algarak. Izerditan esnatu zen. Ondarearen murritzetak ez zuen garrantzirik, baldin eta Abelardo bere bizitzatik bertiko desagertzen bazen. Ezin zuen minutu bat gehiago ere jasan.

Loezineko gau izugarriaren ondoren, bihamunean bi anaiak notarioaren aurrera joan ziren. Albazea, testamentu-betearazlea, han zegoen, lehengusu batzuk eta ahaideren bat, hildakoarengandik ezer espero zuelako baino gehiago anaia berriak sorturiko jakin-minagatik joana. Abelardok Alfonsoren ondoan eseri nahi izan zuen, baina Alfonso bere haurridearengandik ihesi senitarteko eta lagunaren artean izkina batean ezkutatu zen, anaia agertu berriarengandik urrun. Guztiak isildu ostean, notarioa testamentua irakurtzen hasi zen.

“Leonor Rosembourg zenduaren nahia da dituen ondasunak bere semeen artean erdi bana geratzea, baina ezinbesteko baldintza da Rosembourgtarren egoitzan elkarrekin bizitzea, elkar ezagutu dezaten eta beraien artean harremana sor dadin, hildakoa hori eskaintzeko gauza ez baitzen izan bizitzan, eta, horrela, jabegoaren gaineko eskubideak bien elkarbizitzari lotuta geratuko dira.”

Denak isildu ziren notarioa entzutean. Abelardo bere anaia besarkatzen eta musukatzen hasi zen aurpegira errepikatuz: “Zein ona zen ama!”

Alfonsok, apurtzeko zorian zegoen txotxongilo mehe bat bezala astindua, ezin izan zuen gehiago, eta oihu egin zuen anaiarengandik libratzen saiatzen zen bitartean:

- Utz nazazu bakean! Zu ez zara inoiz Rosembourgtar bat izango, ergel hori!

Baina haren eztarritik atera zen ahotsa hain zen zorrotza, hain barregarria, neskato oihulari baten hain antzekoa, non, hura entzutean, barre-algaraka hasi baitziren denak, eta, beti lege, ez zioten jaramonik egin.



Segundo C. Escolar

Artista globala

8 azaroa, 2023 | por Javier Campo



Segundo Escolar ezagutu nuen atzo. Orain hilabete arte ez nuen haren berririk inoiz izan. Orain artistaz eta pertsonaz maiteminduta nago. Gaur egungo munduan, non miretsiak tutu batekin 'o' egiten ez dakiten lausengariak diren, edo antzezle kuxkuxeroak, ezeren kantariak, "youtuber"ak, "influencer"ak, "tick-tocker"ak, entzefalograma lauuko nerabeak eta beste hainbat fauna, benetako artistak, artea ekoizten dutenak, eta artea emozioa da, erabat ahaztuta daude, eta txarto bizitzeko arrastaka dabilta beren obra saltzen ez dutelako.

16

Benetako artista bat ezagutu nuen atzo, sentitzen, entzuten, engainu barik hitz egiten duten horietakoa, bere obren bidez espre-satzen dena eta munduak baztertua daukana. Dagoeneko ez daki non sartu 70 urte baino gehiagoz egin duen obra guztia. Izan ere, bere geneek, sehaskatik, inoiz utzi behar ez zuen bidea markatzen zioten. Bere leinuak markatuta zeukan mundura jaio zenetik. 8 urterekin ikaskideei eskolak ematen zizkien, eta 14 urterekin, haiekin tranpetan ibiltzen zen eta plastikako lanak egiten zizkien "txanpon" batzuk irabazteko.


Jazarriaren, izurritsuaren estigmarekin hazi zen. Bere abizena seinatuta zegoen, aita kartzelan baitzegoen, inkonformista izateagatik. Amak nahikoa lan izan zuen berak bakarrik hazteko seme-alabak. Bederatzi urterekin, Salamanca jaioteritik Bilbora etortzea erabaki zuten, eta hiri horrek betiko markatuko zuen, nahiz eta egonaldia gogorra egokitu zitzaion. Hemen gizonduratu egin zen, eta ospea lortu zuen artista eta langile nekazekin gisa.

Benetako artista bat ezagutu nuen atzo, antzinako estiloko arte-maisu bat. Ezinezkoa da sailkatzea. Ez da pintorea, ez eskultorea, ez zeramikagilea, ez forjaria, ez beiragilea, ez bozelatzailea, ez editorea, ezin da sailkatu lantzen duen antzinako beste edozein lanbidetan ere, guztietan aldi berean egiten baitu lan. Nola deitu diezaiokegu arte guztiak bere izatean batzen dituen pertsonaia bati? Moises izan liteke, Legearen Taulekin Sinai menditik jaisten; Errenazimendutik irtendako pertsonaia izan liteke, hutsegitez XXI. mendean jaioa; baina inoiz ez Ilustraziotik, nahiz eta ilustratu autodidakta izan.

Benetako artista bat ezagutu nuen atzo, teknika berrien eta egungo materialen ikertzailea, berak eskatutako forma eman arte horiek



Bere etxeko horma ugarietako bat




Lydia alabari omenaldia

menderatzea lortu duelarik. Ia 80 urte dituen arren, lanerako bere gaitasun izugarria ez da murriztu, eta horrek eraman du arte grafikoak, publizitatea, erakusleiho-apainketa, diseinu arkitektonikoa, pintura, eskultura, zeramika, medallistika, beira eta artearen barruan bururatzen zaigun guztia lantzerara.

Benetako artista bat ezagutu nuen atzo, bere aurreko 5 belaunaldiek metatutako jakintza guztia bere baitan biltzen duena, guztiak bera bezain artistak, baina berarengan lana, ikerketak, talentua, azken batean, bere jeinua elkartzen dira. Teknika plastikoaren adierazpen guztien menderatzaile titanikoa da, bere indibidualtasuna lortzeko erosotasunetik ihes egin dezakeena, eta horri gehitu behar zaio teknikaren nagusitasuna, edozein teknikarena, guztiak entseatu eta menderatu ditu-eta. Materiaz bere aldaera guztietan maiteminduta dago, eta horiei, zeinahi dela ere, forma ematen die, bere eskuen artean sentitu, laztandu, forma eman beharra dauka-



Gurasoei omenaldia



Segundo Escolar bere estudioan

lako, azken batean, bereganatu beharra daukalako arte bihurtzeko.

Benetako artista bat ezagutu nuen atzo, bere obran zigilu eza-baezin eta nahastezina uzten duelako. Haren etxean, artista guztien etxean bezala, arte-adierazpide guztiak, bereak eta besteenak, nahasten dira, ezin hobeto sekuentziatutako gauzen nahas-mahasi batean, denak erdi ilunantzean, berari ikus-tea gustatzen zaion bezala. Berak adierazita, eta haren atzetik, eskaileretan gora doalarik milaka aldiz igo dituenaren eta adinak barkatzen ez dionaren patxadaz, paretak ikusten ditugu bere eta beste batzuen mihisez beteak, baita zeramikazko piezak, batzuk landugabeak eta beste batzuk leunduak, zeramika erre-gogorrezko ontziak, haien gainean bere pintzelak jarri zituelarik bizia emateko eta mirespenez begietsiak izateko, eta horrela hirugarren solairuraino iritsi arte, Gaztelako soroen benetako talaia bat, non begiak margolanetatik pintzeletara doazkigun, mihiseetatik hotzean prentsaturako paperera, haren liburutegi zaindu baktik margolan multzo batera, marko egoki batez inguratu arte pausatuta daudelarik. Haren mundua da, non bizi eta hil nahi duen.

Benetako artista bat ezagutu nuen atzo, non lana konstante bat den, bere bizitza, bere grina eta bere izaera definitu dion pasioaz gain. Zeren eta gizakia, gizona edota emakumea, haren artearen erdigunea delako. Eta haien aurpegiak, normalean begirik gabeak, "Escolar"en tipikoak dira, bere aztarna digitala. Bere lanak definitzen du bera, bere ispilua lez dira, bere zahartu aktiboaren irudia itzultzen dion ispilua. Haren obra denboragabea da, iraunkortasunaren patina eta hondoa ditu.

Atzo benetako artista bat ezagutu nuen, dimentsio unibertsaleko benetako artista bat, baina horren guztiaren gainetik, benetako gizaki bat ezagutu nuen atzo.

Lerro hauen irakurleren batek artista ospetsu honen lanen bat non ikus edo mirets dezakeen galdetzen badio bere buruari, Algortako "El Redentor" parrokiara jo besterik ez du. Bertan, atetik sartu bezain laster, sei metro eta erdiko altuera duen eta pinu asturiarrez egin dagoen mural bat aurkituko du aurrez aurre, eta bertan kristau fedearen bi une nagusi daude jasota: Kristoren igokundea eta heriotza gurutzean. Harrigarria eta bikainaa.

BIDAIA EGIPTO - JORDANIA - ESTAMBUL

6 julio, 2023 | por M. Carmen Blanco

Aireportutik bidaia hasteko gogotsu irten ginen. Gure "Viajes Ikea bidaiaik" motxilak ilusioz, emozioz eta, nire aldetik, urduritasun apur batez beteta zeuden.

Kairora goizaldean iritsi ginen.

Gure logelako terrazatik, 16. solairutik, ikuspegi zoragarria zegoen; gure begien aurrean, Nilo ibaiaren uretan, ispilu batean lez, argizatutako eraikin asko eta altu-altuak islatzen ziren.

Laster jabetu ginen hiriko anabasaz, zalapartaz eta zirkulazioaren desordenaz, non kalea zeharkatzea arriskutsua den, dena azkarren eta ausartenarentzat baita.

Hurrengo egunak Kairon denboran atzera bidaiatzea bezala izan ziren, istorioz, elezaharrez eta boterez beteta.

Gizako piramideak bisitatu genituen, kanpotik bezain ikaragarriak barrutik; han, haien aurrean zaudenean, ikusten ari zarenen handitasuna sentitzen duzu, baina ... Haien errailetan barrena ibiltzea misterioz betetako esperientzia osotzea da; izan ere... lau mila urte baino gehiago dituzte!

Kairoko egun egitekotsu haietan egiptoar museoak bisitatu genuen; estatua itzelak, hainbat dinastiatako pintura bikainak eta hilobi-elementuak, ehun eta hoge mila pieza baino gehiago, guztiak Antzinako Egiptokoak. Besteak beste, Tutankamonen Altxorra, Sarkofagoa eta Maskara Ospetsua jaigon edo zaintzen dituzte.

Alabastrozko Meskita ezagutu genuen, auzo koptoa, "Jan el Jalili" bazarra (bertan galtzeko modukoa) hiriaren bihotza da, ez da ezer falta, artisautza, frutak, larrua, ehungintza, espezieak... Bertan dago ispiluen kafea, historia duen kafea, pertsonaia ospetsuak biltzen dituen, adibidez, Najib Mahfuz, literaturako Nobel sariduna, "Mirarien kalezuloa" eleberriarekin. Eta han geunden gu te goxo-goxo bat dastatzen eta jendearen joan-etorriak begiesten.

Egun bat Alexandrian eman genuen. Ponpeioren Zutabea ikusi genuen, granito gorrizko pieza bakar batez egina. Kom el Shoqafako katakonbetan, eskailera kiribil estu batek hilobi batzuetara eramaten zaitu, hileta-kultuaren eta eragin greko eta erromatarren arteko fusio interesgarria erakutsiz,

Alexandriako Liburutegi Handia oso eraikin modernoa da,



eta Aswandik ekarritako harritzko fatxadetan munduko hizkuntza gehienek kaligrafia-sinboloak ikus daitezke.

Qaitbayko gotorlekutik Mediterraneo itsasoaren ikuspegi zoragarriez gozatu genuen, non egun batean bere itsasargi ospetsuak distira egin zuen itsaso urdin hari begira.

Kairo utzi eta Luxorrera joan ginen hegazkinez. Han, "Esadora" gurutzatzea genuen zain, lau egunez Nilon ontziz nabigatzeko. Topera, denak emanda bizi ahal izan genituen lau egunak!

Herrian ibilaldia egin genuen kalesa batzuetan (izan zitezkeen hobeak!), eta karrika estu, buztinezko bide eta kaleko postuen artean murgildu ginen, bertan nagusi zen zikinkeria eraginpean zeuden produktu artean. Benetan tamalgarria zen pobrezia- eta zikinkeria-egoera hura, zoritarrez leku gehiegitan dagoen errealitatea. Aberastasuna eta pobrezia elkarren ondoan bizi dira.

Biharamunean oso goiz jaiki ginen globoan bidaia egunsentian egiteko. Jarduera ederra izan zen. Goizeko argiak Erregeen Haranaren gainetik hegan zihoazen globoen kolorea nabarmentzen zuen. Benetan esperientzia magikoa izan zen.

Hurrengo egunak bereziak izan ziren. Tenplu handien dotorezia faraonikoak urrats bakoitzean inbaditu gintuen: Luxor, Karnak, Kom Ombo, Hachepsut Hileta Tenplua, Erregeen Harana, handientsuak, ezin bikainagoak! Tenplu haietan guztiak liluratu gintuen.

Trajanoren kioskora eta Philaeren tenplura itsasontziz hurbiltzeak xarma berezia du leku zoragarri hartan.

Philaeren tenplua, Isis, maitasunezko jainkosari eskainia, Isis, Osiris eta Horus triadako kondairaren zati da, Edfu eta Kom-Ombon ere badaudenak.

Jatorrizko kokalekuan, Philaeren tenplua eta hari erantsitako tenpluak izen bereko uhartean zeuden. Aswango urtegiaren eraikuntzarekin urpean geratu zen. Unescori esker salbatu zen, Abu Simbel bezala, betiko urperatuta geratzetik. Tenplu-multzo hura harritz harri desmuntatu, lekuz aldatu eta inguruko uharte batean muntatu zuten berriro: Agilkian, eta han miretsi dezakegu gaur egun.

Abu Simbel, ahanzten zaila. Ramses II.aren eta Nefertariren tenplu itzelek, basamortuko hondarretatik eta Aswango Presa Handitik erreskatatuak, ibilbide lasai bat merezi dute denboraren joana ahogozatzeko. Baina gauaren zain egoteko eta Abu Simbel gaur ez ikusteko aukera izan genuen. Oso gomendagarria: esperientzia magikoa da, bi tenpluek argiztapen berezia jasotzen dutenez, argi eta kolorezko ikuskizun zoragarria eskaintzen dute.

Gure bidaiari nubiar herrixka baten bisita gehitzea erabaki genuen.

Sudan eta Egiptoren artean zegoen lurralde bat zen Nubia. Inguruko zibilizazio garrantzitsuenetako bat izan zen, bere



historiaren zati bat Egiptorekin partekatu zuena. Haren ibilbidea bi lurralde horiei lotuta egon da beti, harik eta 1956an biztanleria bi herrialde horien artean banatu zen arte.

Berririo ere txalupatxo atsegin batean ibili ginen, bere musika eta dantzekin, Nilok eskaintzen duen ingurune bikainaz gozatuz. Old Cataract hotelaren aurretik igaro ginen, non Agatha Christiek "Heriotza Nilon" eleberrirako inspirazioa aurkitu baitzuen.

Nubiar herrira iritsi ginen eta han artisautza-postu txikiz, ehunkiz, espezieaz eta abarrez betetako azoka ugari-ekin topo egin genuen. Kolorea nabaria da, zati turistikoena erakartzeko izango da ziur aski, eta benetan lortu ere, bai horixe! Oso herri bitxia zen, hango etxe batzuk bisitatu eta krokodiloren bat ere ikusi ahal izan genuen bertan.

Nilon barrera egin genuen ibai-bidaia amaitzeko zegoen, baina betiko geratuko zaizkit oroimenean ilunabarrak ontzi-gainean kafe kikara batekin, gozokiekin eta lagun arteko elkar-rrizketa bikainekin.

Hurrengo helmuga Amman izan zen, Jordanian.

Itsaso Hilerantz abiatu ginen.

Arratsaldean iritsi ginen, eta bidaia ostean suspertzeko, umeak bezala joan ginen lasterka bainua hartzera eta itsaso hartako flotazio ospetsua esperimentatzera. Zoragarria izan zen. Gutariko batzuk mineraletan aberatsa den hango buztin beltzaz igurtzi genuen gorputza, inguruko turismo-zentroetan tratamendu terapeutikoak eta kosmetikoak egiteko erabiltzen dutelarik. Une dibertigarria izan zen, denok beltzez ia ez genuen elkar ezagutzen.

Biharamunean Madabara joan ginen. Interesgarriak izan ziren hango bisitak ere, besteak beste, Nebo mendia, non Moisesek Agindutako Lurraldea ikusi baitzuen, inoiz iritsi ez bazen ere han sartzera.

Azkenean, Petra!



viaje-egipto-7Petra hirira abiatu ginen Al Siq izeneko arroila estu batetik. Bertan, hareharri arrosazko labarretan induskatutako hilobiak eta tenpluak daude, eta handik datorkio bere goitizena, Hiri Arroza. Gidariak gure arretera erakartzeko hitz egiten zigun, eta halako batean esan zigun: "Bira zaitezte! eta bat-batean..." "Aaaa!" atera zitzaigun guztioi.

Gure begien aurrean Al Khazneh eraikin ospetsuena ('Altxorra' ere esaten zaio) zegoen, 45 metroko altuera duen tenplua, estilo greziarrean apainduta harrian zulatutako fatxada batekin. Mila aldiz ikusita argazkietan, filmetan, ... eta azkenean bertan geunden. Bikaina benetan!

Betetako ametsa, beti gure oroimenean egongo dena.

Jordanian, Wadi Rum basamortuko esperientzia falta zitzai- gun oraindik.

Gaua igaroko genuen kanpamentura iristeko eta gero Wadi Rum ("Ilargiaren Harana" ere esaten zaio) zeharkatu eta esploratzeko, gidaridun 4 x 4 ibilgailuan joan ginen batetik bestera. Kanpamentuan afari tipikoa, hondar azpiko labe batean egina, prestatu ziguten, oso goxoa zegoen, ... eta gero burbuila-gelan lo egin genuen.

Basamortuan egunsentia bizitzea zoragarria da, naturaren oparia, ametsetako kolore-ñabardurekin. Eta ibilbideak 4x4 batean paisaia amaigabea zehar egitea beste dimentsio bat da.

Istanbul izan zen gure bidaiaren azken helmuga. Euripean hartu gintuen, eta hala ere ederra da.

Pribilegioa izan genuen Bosforon zehar nabigatzeko, gu- retzako bakarrik zen ontzi batean, ikus genitzakeen eraikin guztien xehetasunak eta herri hartako ohiturak kontatzen ziz- kigun gidari atsegin batekin. Zoragarria. Luxu hutsa.

Liluratu egiten nau Istanbul, beti daude mila gauza egiteko eta beti itzuli gura duzun lekua da.

Gure bisita guztiak panoramika onena bilatuz amaitzen zi- ren, eta gure esperientzia laburbilduko zuen talde-argazkia eginez.

Ez nuke amaitu nahi esan barik taldea maitagarria izan zela hasieratik, eta une oro familian sentitu nintzela. Agian beste batean esperientzia berriak bizi ahal izango ditugu elkarre- kin.

Eskerrik asko Joserrari, bere profesionaltasunagatik eta une oro hain ondo zaintzeagatik. Lagun handia bihurtu zara.

Ziur asko mila gauza geratu zaizkit kontatzeko. Azkenean es- ango dut han egon izanak oso zorioneko sentiarazten naue- la.

Bidaia

Rhin ibaian zehar bidaia?

10 uztaila, 2023 | por Javier Campo

Oporretan irtetea pentsatzen duzun unetik bertatik hasten dira urtez urte argitu beharreko dilemak. Aukera ezberdin ugari dituzu zeure aurrean: Hondartza? Mendia? Atzerrian? Estatu barruan? Etxetik hurbil? Erlaxatzeko? Kultura bila? Haurrekin? Biok bakarrik? Maskotarekin? Hurbileko herrialde batera? Exotikoren batera? Zenbat diru daukat? Zenbat diru nago gastatzeko prest? Nola egingo ditut joan-etorriak: trenez, hegazkinez, itsasontziz, bizikletaz, oinez? Eta oinarritzotzat jotzen dudan eta egiten hasten zaren galdera, bidaiarako hilabeteak falta badira ere: Noiz joango naiz oporretara? Zein da sasoirik onena nire egoera pertsonala kontuan hartuta?

Jakina, hori guztia baldintzatzen duena da... jardunean zauden eta zure enpresarekin datarik egokienei buruz ados jarri behar duzun, ala egoera pasiboan zauden, hau da, erretirata eta inori baime-nik eskatu beharrik gabe, orduan aski baita zure bikotekidearekin ados jartzea. Noski, adinak ere badu bere garrantzia, eta hori oso kontuan hartu behar da, nahiz eta adinean aurrera doazen gaztetxo batzuk oraindik gai diren 30 edo 40 urte zituztenean egiten zutena egiteko. Eta baten bat, bere sasoi onagatik, gai da oraindik gehie-nok jada galarazita ditugun gauzak egiteko ere.

20

Gu geu Egipton milaka urte dituzten lekuetan barrena egindako bidaia eder batetik gentozen, eta herrialde hartan ikusi beharreko guztiaz gozatu nahi izan genuelako, basamortuan zehar autobu-sez bidaia amaigabeak egin behar izan genituen, eta hori piramide, mastaba, hilobi-kripta, tenplu amaiezin eta abarretara igotzeaz eta jaisteaz gain; beraz, Nilon zehar egindako bidaia-egunek bakarrik arindu ziguten aurrekoa.

Horregatik, hurrengo bidaiarako egin genuen planteamendua izan zen: "Bidaia lasaia, joan-etorri askorik gabea, herrialde moderno baina historiadun batera". Eta, beste behin ere, gure erretiratuen elkarteak Barceló Bidaiak-eko Maria paregabearekin batera egin-dako proposamena izugarri gustatu zitzaigun hasiera-hasieratik.

Rhin ibaian zeharreko bidaia batek, hasiera batean, erabat asebe-tetzen gintuen. Gauzez lekualdatuko zen ontzia, gu atseden hartzen ari ginen bitartean; herrialdearen zati bat ezagutzen genuen, baina ez proposatutako ibilbidea; paisaiak presa barik gozatzeko mo-dukoak, ahalegin handiegirik egin beharrik gabe, turismo-eskaintza oso interesgarria, janari ona eta edari gustagarriarekin. Dena ezin hobeto egokitzen zitzaion gura genuenari. Eta izena eman genuen ziur geundelako bidaia ahaztezina izango zela.

Baina naturak beste zerbaite zuen aurreikusia, Mariak berak ere au-rreikusi gabea eta, jakina, konpondu ere ezin zuena. Europak ja-saten duen lehorte espaziotik ere antzematen zen. Lehen goitik berde-berde ikusten ziren lekuak orain marroi-kolorekoak dira. Hala erakusten dute Europar Batasuneko sateliteek ateratako argazkiek, matematikak dioenaren adierazgarri diren irudiek: Europar Batasu-neko lurraldearen erdiak (% 47k) 'Abisu' egoera du aktibatuta, eta bosten bat (% 17) 'Alerta' egoeran dago. Horiek ziren Frankfurt ai-reportura joan bezperan salatutako datuak.

Zer dela-eta hori dena? Ba, Europa osoa jasaten ari den euri-faltak Alemanian Rhin ibaian zehar egin ohi den merkataritzari ere eragiten diolako. Sei herrialde zeharkatzen dituen arren Alemaniaren sinbo-lo garrantzitsua den eta munduko ibai-bide erabilienetako bat den ibai horren ur-maila baxuak merkantzien trafikoa etetea eragin du ibaiaren zati batzuetan. Datuen estatistika historikoak erakusten du Rhin egarriz akabatzen ari dela; izan ere, azken 20 urteak erreferen-tziaz hartuz gero, emaria minimoetan dago, eta adituek iradokitzen dute datozen asteetan gainbehera jarrai dezakeela. Hala eta

guztiz ere, heldu zaizkigun azken berrien arabera, aurreko egune-tan euria egin ostean, Rhin ibaia apur bat "biziberritu" egin da, bai-na berriro jaistea espero da, nahiz eta ez izan aurreko mailetaraino. Bada Alemanian lehortearekin gertatzen ari denaren adierazle bat oso ikusgarria: "gosearen harri" (alemanez hungerstein) ezagunak, lekuaren harizko jagoleak, agerian geratzen ari dira. Horiek, ize-nak berak adierazten duen lez, harri handiak dira, uraren maila oso baxua denean ikusten direnak, eta eskuz grabatutako idazkunen bi-dez, gosetearen eta, hori gertatuz gero, atsekabe handien probabi-litateaz ohartarazten dutenak, eta, are gehiago, batzuek kontserbat-zen dituzte aurreko mendeetako jendeak egin zituen inskripzioak, ibaietan gutxieneko maila zegoenean eta egoera gaur egungoaren antzekoa zenean.

Bagenuen lehorrean geratzeko beldurra gurutzaontziak nabigat-za ezin irteteagatik, haien sakonera txikia izan arren, eta "San Espedito"ri erreku egitea besterik ez zitzaigun geratzen, gu iritsi aurretik ur gehiago eror zedin eta bidaia gorabeherarik gabe burutu zedin.

Oso luzea eta agian beteegia izango litzateke ibilbide osoan izan-dako sentsazioak deskribatzea: Maguntzia, Kolonia, Bonn, Linz and Rheim, Cochem (irakurri Cogen), Treveris, Luxenburgo, Koblent-za..., eta Berkanstel-Kues, Traben-Trarbach, Rüdeshiem eta Mose-laren bi ertzetan dauden edertasun berdineko beste herri batzuk. Lekua paregabea da, zoragarria, egunez bidaian ikusi, miretsi eta gozatu egiten dituzu ibaiaren bi ertzak, film bat ikusten ariko ba-zina bezala, postaleko herriak, ametsetako gazteluak, kale isil eta ibilgailuen zirkulaziorik gabeak, masifikazio barik, antolakuntza ia perfektuarekin eta Agentziak gure esku jarritako elementu (gidari) paregabeekin. Bidaia baketsua eta atsegina, inguruabar arrarorik eta zalapartarik gabea, erlaxatua, erakargarria, zer ikasi askorekin igaro eta bisitatu ditugun leku guztietan, bereziki aipatuz mundu osoan ezagunak diren Beethoven edo Karl Marx jaio ziren hiriak.

Irakurtzen didatenentzat eta erabakia hartzeko hau baliagarri gerta dakiekeenentzat, hona hemen nire ondorioak:

Charles Dickens M/S gurutzaontzia: Itsasontzi hau argazki eta guzti jaso badugu, bere deskribapena oso erraza delako izan da.

Erraza litzateke esatea luxuzko ontzia dela, baina, hobeto esan-da, itsasontzian ibiltzea da luxu hutsa. Ontzi-enpresak ahalegina egin du ontzi horri diskretua, bai, baina giro bikaina emateko, mai-la goreneko estila eta dotorezia uztertuta. Kanpoaldetik ematen ez duen arren, oso-oso zabala da ataritik ikusita eta bi aldeetako, ababor eta istriborreko, ateetatik gela edo kamaroteetaraino sartzen den argi naturalez betea, goi-mailako hotel baten elementu guztie-kin hornituta; eta leihate itzelak, begien aurrean eskaintzen zitzaigun naturaz gozatzeko. Barrualdean, garbitasuna ezin handiagoa; eta diseinua oso orekatua da, zur nobleak, letoi dirdaitsua, kobre leundua, beira distiratsua eta beirate garbi-garbiak erabiliz. Ezin hobeto argiztatuta dago, kanpoaldea barne, eta modu irudiment-suan apaindu da harmonia handiz jarritako koloreekin, giro lasaia eta lasaigarria sortuz, dena bidaiariaren erosotasunerako pentsatua. Oso gustura egon gara.

Antolaketa: Ez da erraza horrelako bidaia bat antolatzea eta dena primeran ateratzea. Beti egongo da monotonia hautsiko duen edo bidaiaren inertziatik irtenaraziko gaituen gertaeraren bat. Kasu ho-netan, nahitaez aldatu beharreko norabidea izan ezik, dena prime-ran joan dela ziurta dezaket; izan ere, Rhin ibaian ur-emaririk ez zegoela eta gurutzaontziek gelditu egin beharko zutela iragartzen zelako edo, bidaiari-kopurua gurutzaontziak har zezakeen gehie-nekoa baino askoz txikiagoa izan zen. Guztira 144 plaza baditu ere, 86 izan ginen gu.



Cochem eta bere Reichsburg gazteluaren ikuspegia M/S Charles Dickens gurutzatutik

Zerbitzua: M/S Charles Dickens-en eta Catai-ren zerbitzuak 10ekoak izan dira. Gure aldetik batere kexarik ez. Denek lan egin dute gure egonaldia ahalik eta atsegina izan zedin, eta bai lortu ere. Janaria, bai “buffet”ekoa, bai mahaian zerbitzatutakoa, askotarikoa eta egoki ondua izan da. Gustura jan dugu, eta Areto Panoramikoko taberna beti egon da behar bezala zainduta, nahiz eta hizkuntzaren eragozpena izan langile edo beharginen batekin.

Bidaariak: Normala izaten da horrelako bidaietan lagunarte estua egiten duen talde, txikiago edo handiago, batekin joatea. Bidaia honetan oso argi ikusi da hori, baina, gainera, EZ DA KOMUNIKAZIO egon BILBOTIK joan garenon eta BARTZELONATIK eta Hegoaldeko beste leku batzuetatik joandakoen artean. Portaera bikaina izan da kasu guztietan, baina, batzuetan, bakoitzaren jatorria nabaritu izan da sortzen duten eta dugun zarategatik. Ez da komunikaziorik egon, talde bakoitza bere kasa ibili da, nahiz eta bizikidetzatza ona izan den, oro har, elkarrekiko errespetuarekin.

Aukerabidea: Eta honetan datza gakoa. Zuzena izan al zen aurrez jarritako eta guztiok onartutako eta ordaindutako ibilbidea aldatzeko erabakia? GOOGLE bidez zabaltzen ziren albistek zioten beste gurutzatutako batzuk arazorik gabe ari zirela irteten Estrasburgotik, hau da, guk eraman beharko genukeenaren kontrako norabidean. Hala eta guztiz ere, konfiantzazko boto bat emango diogu kapitainari, berri gehiago, hobeak eta zehatzagoak izango baitzituen ibaiaren goiko aldeko ur-emariari buruz, eta, beraz, haren eta gure atsekabe handiz, Rhineko ibilbidea Moselara aldatzeko erabakia hartu behar izan zuen.

Beste kontu bat da geure buruari galdetzea ea aldaketarekin irabazi ala galdu egin genuen. Begi-bistakoa dirudi, bi aukerak baloratuz gero, galdu egin genuela eta askogatik, gainera. Horrek ez du esan nahi ikusi dugunak merezi ez duenik, baizik eta ikusi ez dugunak eta ikustea espero genuenak askoz ere garrantzi handiagoa duela historiaren, arkitekturaren eta kulturaren ikuspegitik, eta, beraz, baita turismoaren ikuspegitik ere. Ezin da konparatu galdu duguna (Heidelberg, Espira, Estrasburgo edo Colmar bezalako lekuak) ikusi ditugun Bernkastel-Kues, Traben-Trarbach edo baita Luxemburgoren ere, nahiz eta inguru hauetaz merezi duten bezala gozatu dugun eskaintzen duten guztiagatik, Riesling ardo zuria barne. Gure gidariek asko lagundu digute hasierako ibilbidea ahazten, aurrean genuen hartan arreta jartzeko.

Azken finean, beste esperientzia bat, ahaztezina. Frantziako eta Alemaniako zati bateko gauzarik ederrenak zeharkatzea Rhin ibaian eta Mosela ibaiadarrean barrena. Hunkitzea eta txundituta geratzea halako edertasunaren aurrean, sentsazio berrien artean. Haize arina sentitzea aurpegian, eta bitartean ametsezko paisaiak, xarmaz eta historiak beteriko hiri eta herriak begietsi eta mirestea. Natura bere distira osoan. Mahastiak, bere handitasun guztian, mahatsa bere unerik onenean zela eta batzeko prest bi ibaiertzetako hegaletan.

Ur gainera hotel batean lo egitea, ibaiako uren kulunkatze arinarekin, astindu handirik gabe, leuntasunez, zarata barik. Ibai-bidaia baten giro ezin hobea, non turismo-mota honekiko maitasun-harreman ahaztezina sortzen den, horrelako batean berriro elkar topo egingo dugularik ziur asko.

Oporrak atseden gisa erabili nahi dituzten guztiei, eta ez lanera estresatuta itzultzeko, horrelako ibai-bidaia bat gomendatzen diet. Turismoa ahalik eta modurik lasaienean egingo dute eta erabat gozatu dute aukeratutako ibilbideaz.

Ezin dut aipatu gabe utzi xehetasun bat, gure bilbotar-harrotasuna ondo oinarrituta dagoela erakusten duena, hau da, gure portaera onari esker igarotzen garen tokian arreta pizten dugula, eta arrastoa uzten dugula bai gure aurretik izan zirenen aldetik eta bai hurrengo mendeetan etorriko direnen aldetik ere.

Maguntziako hirian zehar egin genuen paseoan, norabide eta distantzien seinale berezi hori ezagutzeko aukera izan genuen, munduan barreiatuta dauden sei leku agertzen dira, eta ez daude Madril, Bartzelona, Sevilla edo Valentzia, baina bai, eta ezin bestela izan, BILBO (La Rioja 1.136 km), Bordele, Adelaida, Oporto, Mendoza edo Valparaiso bezalako hirien parean nabarmendua. Misterioa da zergatik lotu duten gure “botxoa” Errioxa ardo-eskualde ospetsuarekin, agerikoa baita aipatutako gainerako hiriak bat datozela horretan. Mundu osoko ardo-eskualde ospetsuak dira guztiak, Maguntzia bera bezala. Hemendik igaro ziren erromatarrek ere bazekiten zelako garrantzia izango zuen Bilbo hiriburuak, inguru haiegan egonaldia egin eta mila urtera, eta ezagutzen zituzten Errioxako ardoak.

Gai horri buruz gidariak galdetuta, isilik geratu ziren, ez zekitelako zergatik kokatu zuten seinale hura hantxe, are gehiago, erreparatu ere egin gabe zeuden seinale hari beste talde batzuekin egindako ibilaldi ugarietan.

Gure jatorriaz, hiri honetako agintari alemaniarrek nabarmendutakoaz, harro eta esker onez sentitzea besterik ez zitzaigun geratzen. Agian urrunetik etorritako turistaren batek galdetu du: “Baina, non dago Bilbo?”. Eta gure hiribilduak eskaintzen diena arakatu eta ezagutzean, gure hiri ezagutzeko jakingura sartu zaio. Ongi etorri!

Munduan bada leku bat non bakea arnasten den, postal zaharrak erreel bihurtzen diren, ipuinetako gazteluak existitzen diren eta non sentitzen duzun ipuin batera joan zarela eta ez duzula handik esnatu gura.

Bada munduan inoiz ahaztuko ez dudana leku bat, eta beti itzuliko naiz hara argazkiak ikusten ditudanean eta urteak igaro ahala, atzera begiratz, han egon izanagatik pribilegiatua sentitzen naizenean...

Bide luzea egin behar genuen autoz, tartean geldialdi interesgarriekin.

Motoz eta autoz betetako hiri batean ordenarik gabeko trafikoa ezagutu ostean, zuzen-zuzenean biziko genuen hango errepide zahar eta ibilgailu askoko batetik mugitzeko eromena.

Jar gaitezen egoera hartan: zazpi lagunentzako edukiera zuen lur orotako Toyota eroso, berri, garbi batean gindoazen, esandakoa ulertzen ez zigun gidari batekin, noranzko bakoitzean bi erreiko bide batetik, bakoitza bere kasa ibiltzen zen autoz, motoz eta autobusez betea zegoelarik hura; gainera, idiek tiratutako gurdiak zeuden, iruditzen zitzaizenean gogoak ematen zien bezala bidea zeharkatzen zutenak; eta hori guztia gutxi ez eta ibilbidean zehar sakabanatuta zulo ugari.

Uler daiteke zergatik ez zuen gure gidariak 60 km/h-ko abiadura gainditu, nahiz eta zuzengune luzeak izan gure bidean.

22 Kontuan izanda, lehen esan dudana bezala, eskuinetik gidatzen dela eta bolantea ere eskuin aldean egoten dela ibilgailuetan, San Yu, logika handiz, txoferraren ondoan eseri zen, hots, haren ezker aldean, eta gidatu egin zuen, noiz eta zelan aurreratu behar zuen esanez, hori uste dugu behintzat, eta, gainera, edonondik ateratzen ziren motor eta idiez ere ohartaraziz.

Motozikleta batek ezkerrean jo nahi bazuen, aurrez aurre zetozkion bi erreien artean sartzen zen, bere bide berria hartu arte, beti abisatu barik. Idiek tiratutako gurdi batek alde bateko lursailetatik beste aldekoetara zeharkatu behar bazuen, zirkulazioa kontuan hartu gabe egiten zuen. Edo kamioi batek noranzkoa aldatu nahi bazuen, zalan-tza barik egoki iruditzen zitzaion unean eta moduan egiten zuen.

Errepidean hildako asko izaten ote ziren galdetu nion. Ez zuen ideiarik. Interneten bilatu nuen eta ez nuen daturik aurkitu. Hori bai, esan zidan ohikoena dela inork ez izatea ibilgailua aseguratuta, edo oso gutxi.

Bidaia-planaren barruan, Shwedandaw pagoda ikusi gabe utzi genuen. Ez zigun astirik ematen denerako. Izan ere, geldialdi bakoitzean, komenigarritzat jotzen genuen beste entretenitzen ginen. Herri hartan dena, baita bertako jendea ere, berria eta interesgarria iruditzen zitzaigun, gehienetan uste baino denbora gehiago ematen genuen. Hori ez zen posible izango, logikoa denez, talde bateko kide izan bagina.

Aurreko egunerako programatutako txangoa ere, Powintaung kobazuloak, egiteke genuen. Harantz abiatu ginen. Muino batean induskatuta daude, eta Budaren estatuen eta labar-pinturen bilduma handi bat dute. Egoera on samarrean daude oraindik, baina, barrutiak ezelango zaintzarik ez zuenez, pentsatu genuen ziur asko azkar hondatuko zirela, aurreikus zitekeen turismoaren gorakadarekin.



Powintaung kobazuloak. Ikuspegi partziala



Pinturak kobazulo baten barruan

XVI. mendetik XVIII. mendera bitartean eraiki ziren. Diotenez, gune hartan, agerian eta lurperatuta, Budaren 400.000 estatua baino gehiago daude.

Haietako asko ikus daitezke. Txundigarriak dira haien irudikapenak, bai estatuetan, bai kolorez betetako margolanetan, eta maisuaren bizitzako pasarteak jasotzen dituzte.

Kondairaren arabera, kobazulo-gune hura «Zawgyi» edo naturaz gaindiko ahalmenak zituen alkimista baten bizilekua zen. U Po Win zeritzon eta hortik datorkio izena: Powintaung kobazuloak.

Myanmarreko tradizio herrikoia ren arabera, zawgyiek, ahalguztidunak direnez eta hegan egin eta urpean igeri egin dezaketenez, edozein lekutara berehala iristeko ahalmena dute. Era berean, gaixotasunak eta gaitzak sendatu eta metalak urre bihurtzeko, era guztietako hondamendiez ohartaraz dezakete jendea eta beste gauza batzuk ere egin ditzakete, horregatik are interesgarriagoa da leku sakratu hau bisitatzea, misteriozko kutsu mistikoa baitu.



Budak kobazulo baten barruan

<https://www.destinosasiaticos.com/blog/las-cuevasde-powintaung-en-myanmar/>

Egia esan, kobazuloen edertasuna are gehiago nabarmentzen da kultu-zentro bihurtzeko egileek egin behar izan zuten ahaleginean pentsatzen badugu. Benetan txundigarriak.

Esparru hartatik irten ginenean inguruan zebiltzan tximino batzuekin topo egin genuen, Gibraltarrekoak gogorarazi zizkidaten. "Kontuz lapurretekin!" esan ziguten han ere.

Bertako produktuak saltzen zituzten postu gutxi batzuk zeuden. Haietako lehenengoan hiru koko erosi genituen, ugari zuten likidoa edan eta haien mamiarmyanmar-91en zati bat jan genuen. Hemen ditugunak baino zapore gutxiagokoak iruditu zitzaizkidan.

Handik hurbil, ukendu bat saltzen ari zen neska bat zegoen, 'tanaka' izeneko landare baten enborra harri baten kontra igurtziz lortua, eta bertakoek diotenez eguzkitik babesten duena. Emakumeek eta haurrek oso maiz ematen dute eta haien larruzal marroiaren gainean ukendua- ren kolore zurixka nabarmentzen da.

San Yuk eta saltzaile gazteak produktu hura Begoren aurpegian jarri zuten. Gero kontatu zigunez, azala lehurtu zion. Ez zen konturatu eragin babeslerik izan zuenik.

Azkenik, beste postu batean poto bat ezti natural erosi genuen, Baganeko gosarietan erabiliko genuena. Oso ona. Guztira prezio barregarria ordaindu genuen.

Kontsumitu genuen guztia aire zabalean saltzen zen, eze-lango kontrolik edo osasun-erregistrorik gabe.

Goizaren gainerakoa Baganera joaten eta ostatu hartu genuen Thazin hotelean gure logeletan kokatzen eman genuen. Han atsedean hartu eta bazkaltzen geratu ginen.



Hiriaren kanpoaldean dago Thazin Garden hotela, eremu handia hartzen du, oso polita da. Igerilekua eta lorategi asko ditu, non estupa eta tenplu txiki batzuk dauden. Gosaria, maila onekoa, txabola handi eta eroso moduko batean ematen zuten. Gainerako instalazioak zikin zeuden, abandonatuta bezala. Ikusten denez, gutxi gastatzen zuten mantentze-lanetan.

San Yuren arabera, ohikoak ziren bertan ostatu hartzen zuten bidaariari kexak. Dirudienek, jabeak larregi esploratzen ditu langileak, sarritan aldatzen ditu, eta horrela beti eskarmenturik gabeko beharginak izaten ditu.

Esan zigunez, Baganen, herrialdeko gainerako lekuetan bezala, ez daude maila handiko hotel asko, hain leku erakargarria izan arren. Bidaia-agentziek asko lan egiten



Aurpegiko larruazala zaintzen

dute gure hotelarekin. Hala ere, okupazioa, egun haietan behintzat, txikia zen.

Arratsaldean denbora libre izan genuen. Buztinezko bide batetik hiriko kale nagusiraino joan ginen, egiazki hemen Ayeyarwady izena duen ibaiarekiko perpendikularra den errepide bat, berriro ere espaloirik gabea eta trafiko handi samarra zuena, inolako ordena barik; baina Mandalayn baino nabarmen txikiagoa zen zirkulazioa, besteak beste, askoz hiri txikiagoan geundelako.

San Yuk enkargatu ziguna afaldu genuen hotelaren ondoko jatetxe aski duin batean, kanabera gurutzatuz estalitako eremu ireki batean, olanen papera imitatzen zuten oihal trinkoz babestuta. Luxu handi eta salbuespen gisa, arrautza frijituak eta igurtzeko ogia eskatu zituen guretzat. Ezin gozoagoak iruditu zitzaizkidan. Postrean banana garretatuak jarri zizkiguten.

Barrutiko mahairik handienez eta ongien kokaturikoan geunden. Mahaia estaltzeko mantel bat zegoen, orbanek betea, eta han eman zituen egun gehiago ere. Hurrengo aldietarako, mahai txikiago baina garbiago bat eskatu genuen.



Gure otordua amaitzean, jada gauez, hotelera bideratu ginen buztinezko bidetik. Burdinazko farola batzuek, goiko aldean plater beltz alderantzikatu baten modukoa duten horietakoak, argitasun eskasa ematen zuten, erdian indar gutxiko bonbilla bat baitzeukaten, eta gure helburura iristeko orientazio gisa bakarrik balio zuten.

Ez zegoen zertan beldur izan. Dena segurua zen han. Eta handik autoak ezin ziren ibili. Hori bai, pasatu zenen baten hautsaldia harrotu zuen, eta are ilunago utzi zuen bidea.

Jarraitu baino lehen, esan behar dut eguneko une batean, gugandik banandu baino lehen, San Yuri esan geniola txotxongilo-antzerki bat ikusi nahi genuela, inguru hartan oso errotuta dagoen ikuskizuna baita.

CONTINUARÁ



Lehenengo bisita-eguna Vilniusen. Nire lehenengo bisita 2001ean izan zen, Lituania Europako Ekonomia Erkidegoan sartu aurretik. Asko aldatu da ordutik eta onerako bakarrik. Uste dut EEKko funts edo fondoak erabilera oso garrantzitsua egin dutela. Hango monumentu guztiez gain (asko dira), batez ere bertako kaleen eta monumentu-guneen garbitasunak eta zaharberritzearen kalitate handiak liluratu naute.

Goizean Lituaniako hiriburuan ibili gara Petri eta Pauloren eliza, Gediminas dorrea, Espiritu Santuaren monasterioa eta abar ikusteko.

Arratsaldean auzorik bitxiena ikusi dugu: “Užupis Errepublika”. Užupis artisten “errepublika” da. Bere ereserkia du, konstituzioa, presidentea, gotzaina, bi eliza, zazpi zubi eta zaindari bat (Užupisko brontzezko aingerua). Vilniuseko auzorik zaharrene-tako bat da, eta dokumentu historikoetan jada XVI. mendean aipatzen da. Kanpoaldeko txiroena zen, baina gaur egun Vilniuseko auzorik ospetsu eta garestienetako bat da Užupis.

Antakalniseko hilerriaren bisita. Lituaniako lurretan hildako militar asko daude hilerri hartan. Napoleonek 1812an Errusiari egindako erasoan hil ziren soldadu frantziarren 3.000 hilobi baino gehiago nabarmentzen dira.

Bi mundu gerretan eroritako soldadu alemanak eta errusiarrek ere han daude lurperatuta, 1920ko borroketan hil ziren poloniarrek, eta 1991n tropa sobietarrek hil zituzten lituanier abertzaleak, Lituaniaren independentzia-prozesuan.

Jende guztiak hitz egiten du monumentuei buruz, baina ez da garrantzi gutxiagokoa gidarien profesionaltasuna eta lan ona. Eskerrak eman nahi dizkiot Vilmar, gure taldearekin duen pazientziagatik eta, batez ere, gurekin partekatzen ari den bere ezau-pide handiengatik.

VILNIUS-TRAKAI-KAUNAS

Hirugarren eguna Lituania, gaur Vilniusetik irten gara Kaunasera joateko, baina **Trakai gazteluan** nahitaezko geldialdia eginez, gainera izeiz eta urkiz betetako parke nazionala baita. Gaztelu ikusgarria XIII. mendeko eraikin bikaina da. Uharte txiki batean dago, aintzira idilikoa baten erdian, eta haren uretan adreilu gorriko horma altuen eta dorre lirainen silueta islatzen da. Vilma

gure gidariak emandako azalpenekin, ibilbide osoa egin dugu gaztelu zoragarri hartako areto eta erakusketetan zehar, eta txalupan ibili gara aintziran.

Ondoren, eta bazkari zoragarri baten ostean (egundokoa kala-baza-kremal!), Kaunasera joan gara, eta han lo egin dugu, baina lehenago, alde zaharra bisitatu dugu, baita bertako gaztelua, udaletxe zaharra, ‘beltxarga zuria’ gisa ezaguna, katedrala, askatasunaren hiribidea eta beste hainbat gauza ere.

Lituaniar barrena Nida eta Klaipeda bisitatzeko jarraitu dugu.

KLAIPEDA-PENÍNSULA DE CURLANDIA- NIDA

Azken eguna Lituania eta Letoniara goaz. Kaunasetik Klaipedara ibilbide luze samarra bada ere, merezi du, egia esan. Behin Klaipedan, ferrya hartu eta istmora eroan gaitu, non baitago Neringa parke nazionala, Kurlandiako Istmo Parke Nazionala ere deritzona; Lituaniar, Itsaso Baltikoaren kostaldean, dagoen eremu babestu bat da.

Hondar-barrak 98 kilometroko hedadura du, horietatik 52 Lituaniako lurraldean daude, eta gainerakoak hegoalderantz Kaliningradokoa (Errusia) den zerrendan. Lur-mihi horrek 400 metroko zabalera du zatirik estuenean, eta ia 4 km-koa (3,8 km) zatirik zabalenean.

Magoen basoko paseoa, zeharkaldian banaturik dauden irudi guztiei begira, batere zorrotza ez den treking txiki bat da, eta zerbait desberdinaz gozatu nahi duten bidaiariak ez ezik, familiei ere gomendatzen diet, umeei asko gozatzen dute eta. Bisita hau bizikletan egin zuen lagun batek gomendatu zidan, eta izugarri gustatuko zitzaidala esan zidan, eta uste dut hala izan dela taldekide guztien iritzia kontuan izanda.

Eguerdian Nidaraino joan gara: arrantzaleen hiribildu zahar bat da eta Itsaso Baltikoan kostaldeko leku erakargarrienetako bat.

Arratsaldean, istmo honetatik ferryz zeharkatu ostean, Klaipedara joan gara hiriaren bisita egitera, oinez ongi bisitatzeko den hiri atsegina da.

Agur esango diogu Lituaniari, baina, egia esan, iritzi bikaina daragugu herrialde honi buruz.

KLAIPEDA – PALANGA- SEÑORÍO DE PAKRUOJIS- RIGA (LETONIA)

Egun gogor samarra errepidean, Klaipedatik irten eta ia 400 kilometro egin baititugu, geldialdi batzuekin, Rigara iritsi arte.





San Juan eguna ospatzeko.

Azkenik, munduan dagoen Art Nouveau eraikin-bildumarik handiena ikustera jo dugu, haien bereizgarri diren lerro bihurri eta apaindura aberatseko fatxadekin; beste estilo batzuetako beste eraikin batzuekin batera, hiri polit hau harro sentiarazten dute.

RIGA-JURMALA-JELGAVA-RIGA

Egun trinkoa Letonian, goiz irten gara Jūrmalarantz, letoniarren artean oso ohikoa den uda-lekua, non oinak busti ere egin baititugu Baltikoan.

Hiriko erdigune osoan barrena ibili gara paseo atseginean, zurezko eta oso ondo zaindutako etxe eta saltokien artean.

Rundāle jauregia ere bisitatu dugu, non Errusiak Letoniarekin izandako lotura guztia azaldu diguten. Jauregi hau, nire ustez, nahitaezko bisita da Letonia landatarrean.

Eraikin barrokoen multzo hau, bestalde, atrakziorik bisitatuena da lar turistikoa ez den Zemgale eskualdean.

Zemgale nekazaritza-eskualdea da batez ere, eta bertan gauzarik erakargarrienak dira Curlandiako dukeak (Peter Biron) hemen eraiki zituen bi jauregiak (Rundāle eta Jelgava), baita Bauska hiri txikia eta bertako gaztelua ere.

Lorategiak eta gelak, guztiak zaharberrituak, ikusgarriak dira.

Gero Jelgava aldera jarraitu dugu, eta han hiriaren bisita labur bat egin dugu.

Horrela, Letonia utzi eta ikusteke daukagun azken herrialde baltikora, Estoniara, joango gara.

Espero dut bisita hauek guztiek bidaiatzera animatuko zaituztetela, dagoen gauzarik zoragarriena baita.

SIGULDA-PARNU (ESTONIA)

Atsekabe handiz esan diegu agur Letoniari eta bere hiriburu Rigari. Estoniarantz abiatu gara, baina ez lehenago Siguldako parke nazionala, 'Letoniako Suitza' deitua, bisitatu barik, bere muino leun eta baso hostotsuekin. Livoniarren tribua XI. mendean iritsi zen haranera, eta zurezko gaztelu eta gotorleku ugari eraikitzen hasi ziren, baita Turaida gaztelu ederra ere, 1214an eraikia eta gerra, sute eta suntsipen ugariatatik bizirik iraun duena.

Gutmanis haitzuloen bisita, non baitute jatorria Livoniarren historiako kondairarik ospetsuenek. Haitzuloko hormak eta sabaia apaintzen dituzten margoak eta inskripzioak ikus daitezke.

Jada Estonian, Parnu bisitatu dugu jarraian: estoniar guztientzako udako hiri gisa gehiago ezagutzen da beharbada; bere golkoan



Lehenengo geldialdia Pakruojis jauregian izan da. Lorategi ingeles eder bat da, estatua ugarirekin eta lore asko eta 48 hektareako lursaila duen baso ikusgarri batekin.

Lituanian, lehen Mundu Gerraren aurretik, bertako familia nobleek politika eta negozioak menderatzen zituzten garaietako oroigarri handi bat da.

Egia esan, merezi izan du gazteluko egonaldiak, bazkariak eta bertako bisita gidatuak. Gainera, oso dibertigarria izan den zeramika-tailer batean parte hartzeko aukera eman digute.

Bidaieri berrekin diogu, oraindik 190 km inguru geratzen zaizkigulako eta Lituania azken bisita bat dugulako: Gurutzeen Muinoa. Bake-sentsazioa ematen duen lekua da, non lituanierrek, errusiar okupazioan zehar, beren ausardia agerian utzi zuten okupatzaileen aurrean kemen-erakustaldi honekin.

Bisita amaitu ostean, Rigarantz, Letoniako hiribururantz, jarraitu dugu, bidaia honetaz gozatzen segitzeko zain baitugu.

RIGA

Lehen eguna Letonian, gaur hiria egokitzen zen, eta zelako hiria!!!, RIGA, bai bere iragan ikusgarriagatik, askotan menderatu dutelako suediarrek, errusiarrek, lituanierrek eta abarrek, bai bere egungo izaerarengatik.

Hasteko, azoka, Europako handiena omen dena, bisitatu dugu. Bost pabiloiak, bitxia bada ere, hasiera batean baloi edo globo gidatuak —zehatzago esanda, zepelinak— hartzeko eraiki ziren, eta gero zatitu eta arrain, haragi, barazki, lore eta abarretako pabiloi bihurtu ziren. Kanpoaldea ere oso interesgarria da, Art Nouveau estiloarekin Rigaren erdigunean. Eguneroko bizitzako alderdiak eta bertako produktu gozoak ezagutzeko aukera paregabea.

Geroago, ibilaldi panoramiko bat egin dugu oinez galtzada-harriko kaleetan barrena. Ondo kontserbatuta daude, eta erdigune historikoaren ezaugarri den Erdi Aroko giroa gorde dute. Bisitak alde zaharreko gauza garrantzitsuenak erakutsiz jarraitu du: elizak, Dome plaza eta bere azoka berezia, egun hauetan loreei eskainia dagoena



hondartza oso interesgarriak ditu eta inguratzen duten basoek erakargarritasun handia ematen diote.

Hurrengo egunean Tallinn-era joan gara, agian 'koroaren harribitxia' da, bere alde zaharra gizateriaren ondare izendatuta.

TALLINN

Ikusgarria, ez dago Tallinn definitzeko beste modurik, hiri harresitua eta xarma bereziak dituena.

Tallinn bidaia honetako harribitxia dela uste dut, nahiz eta bidaia osoa ari zaigun oso atsegingarria gertatzen.

Parnutik irten ostean, Tallinnera joan gara, zortea eta gure korrespondent-salaren kontaktua izan ditugu, eta horri esker 10:30ean iritsi garenean logelak prest geneuzkan eta berehala eman dizkigute, zoragarri.

Egun honetan, Vilniusetik izan dugun gidariari, Vilma-ri, agur esan diogu. Aurkikuntza handia izan da, komunikatzaile ona eta, batez ere, pertsona ona, beti irribarretsu eta eskaini ziezagukeenari adi. Bidaia gehiagotarako joko dugu berarengana, hori seguru, harribitxi bat.

Tallinnen, Anneli Ramos genuen zain, aita kubatarra eta ama estoniarra dituen estoniar bat, eta gaztelan oso ondo hitz egiten duena. Berak erakutsi digu Erdi Aroko alde zahar guztia, atzo esan nuen bezala, Unescok Gizateriaren ondare izendatua; Katedralaren muinoa, hiri zaharra eta estoniar hiria bisitatu ditugu, baita ere Alexander Nevsky katedral ortodoxoa eta Toompea gaztelua, Estoniako Parlamentuaren egoitza.

Tira, egun osoa eman dezakegu hiri honi buruz berbetan, baina bidaiatu eta zuzenean gozatzerantz animatzen zaitutet.

LAHEMAA PARKE NAZIONALA

Egun bikaina berriro. Ezin gara kexatu eguraldiaz, bidaia osoan ona izan dugu eta.

Tallinnetik irten eta Lahemaa parke nazionalera abiatu gara, baina lehenago geldialdi bat egin dugu bidean Jäkala ur-jauzia ikusteko; urtegi batek eratutako ur-erorketa eder bat da, pena nahiko genukeen ur guztia ez izatea, baina, hala ere, ikustea merezi du.

Parke nazionalera bidean jarraitu dugu, eta, bertan, parke barruan 4 km inguruko ibilaldia egin dugu hezeguneen artean; geldialdia egin dugu bertan dagoen zelatari-postuan. Bidean aurrera goazela hezegunearen begietan islatutako zero-urlinek argazki ikusgarriak ahalbidetu dizkigute.

Arratsaldean, bazkari tipikoaren ostean, Estonia alemanek kolonizatuta zuten garaiko jauretxe bat bisitatu dugu. Estoniako aberats handien indarra ikusten den garai batera eroan gaituzte irudiek.

Ilunabarrean Altjan, Estoniako kostaldeko arrantzale herrixka batean, ibili gara paseoan; zurezko etxeak ditu eta gaur egun uda igarotzeko lekua da.

Horrela, Estonia utzi eta Helsinkira abiatu gara, 2 ordu eta laurdenerako bidaia eginez ferryan.

HELSINKI (FINLANDIA)

Hauxe da talde zoragarri batekin egindako bidaia zoragarri baten gure azken etapa. Lagunak eta harreman onak sortu dira, talde txikia izatearen abantailak dira, eta hiriak ez ezik, Baltikoko errepublikek dituzten parke natural handiak ere lasaitasunez ikusi ditugu.

Gaur Tallinni agur esan behar diogu, beste guztiak bezala hobeto ezagutzeko denbora gehiago eskatzen duen hiria da, baina ferrya hartu behar dugu Helsinkira joateko, bisita laburra bada ere, benetan merezi du eta.

Benetan merezi du Helsinkirako bidaia ferryz. Bi ordu eta erdi dira, eta uste dut denoi gustatu zaigula. Ferryan jan dugu buffet planean, eta egia esateko, askotariko gauzak zeuden eta oso gustagarriak: gaztak, izokina, kabiarrak eta postreak.

Behin Helsinkira iritsita, gure autobusarekin (bidaia osoan gurekin izan den eta ferryan ere gurekin etorri den berarekin), Leticia gida mexikarra genuen zain.



Hiri osoan barrera lehen ikuspegi bat izan dugu autobusez, baina gero, denok hala eskatuta, bisita oinez egitea nahiago izan dugu, eta, batez ere, geneukan eguraldi bikainarekin, eskertu egin dugu. Bi katedralak —luteranoa eta ortodoxoa— eta parlamentua bisitatu ditugu, eta Oodi liburutegiarekin amaitu dugu bisita: Helsinkiko Liburutegi Nagusiak 100.000 liburu gordetegia baino askoz gehiago izan nahi du; topaleku, irakurketa-etxe, hiri-gune eta arkitektura modernoaren maisulana, 16.000 metro koadro baino gehiagoko eremua. Liburutegiaren oinarriko zerbitzuak doakoak eta publikoak izango dira. Gainera, esparru osoan haurrentzat soilik diren guneak daude, isiltasun- eta irakurketa-eremuak, eta ekitaldietarako toki espezifikak.

Azkenik, hiriaren erdigunean dagoen gure hotelera joan gara, azken gauean atsedean hartzeko eta bihar etxera itzultzeko.

Hemen utziko dugu idatziz jasota Baltikoko herrialdeetan eta Helsinkin barrera egindako bidaia labor baina aldi berean interesgarri hau. Hamabi eguneko bidaia, oso ondo diseinatua, aprobetxatua, atsegina, lasaia, distiratsua...

Oroitzapen zoragarriak utzi dizkigun bidaia, eta berriro elkartzeko gogo handia duen talde bat.

Aisialdiaren balioa (berrargitaratua)



Aspaldi oparitu nien alabei fantasiazko haur-literaturako liburu bat, Michel Endek idatzia, «MOMO» izeneko mi-tiempolibre logo

Istorioak kontatzen zuenez, hiri handietan «gizon grisak», denboraren aurrezki-kutxa bateko agenteak, sartu ziren. Haien helburua zen pertsonak beren denboraren zati bat aurrezteko eta aurrezki-kutxan gordailutzeko konbentzitzea, horrela, etekin gisa, etorkizunean denbora gehiago lortzeko.

Aurrezkia aisialdirako eta atsedenerako tartekak murriztuz edo ezabatuz lortzen zen, eta bezero izan zitezkeenak konbentzitzeko «gizon grisek» erabilitako argudioak honela laburbiltzen ziren: aurrezki orain ahal duzun denbora guztia eta gozatu lasai etorkizunean, erretiroa hartzen duzunean.

Egia esan, gordailugileek aurreztutako denbora guztiaz jabetu nahi zuten aurrezki-kutxa hartako agenteek; izan ere, gordailugileak, beren denbora preziatuena aurreztean, ezinbestean, gaixotu egiten ziren «asperdura hilgarria» izeneko gaitz baten ondorioz, gordailututako denborarekiko interes guztia galduz.

Gaixotasunaren sintomak honela deskriba zitezkeen: «Egun batean jada ez dago ezer egiteko gogorik. Ez zaizu ezer interesatzen eta aspertu egiten zara. Gero eta nahigabetuago sentitzen zara, gero eta hutsago, gero eta atsekabetuago zeure buruarekin eta munduarekin. Erabat axolagabe bihurtzen zara, mundu guztiak arrotz dirudi, eta ez dio ezerk axola.» (1)

Eskerrak MOMOk, neska protagonistak, Hora maisuarekin batera, «gizon grisei» aurre egin eta moztorra kentzea eta garaitzea lortzen duen, jabeei itzuliz lapurtu zieten denbora.

Sarrera honek egunez egun gure denboraz ez gozatzearen arriskuez ohartarazi gura du. Geratzen zaigun denbora gure aktibo nagusia da, eta ageriko erabilgarria da!

Gure kasuan, erretiratuta edo aurre-erretiratuta gaudenez, are arrazoi gehiagorekin erabili beharko genuke gure denbora gogobetetasun handiena sortzen diguten jardueretan. Gozatzeko ilusioa eta aisialdiaren gutxieneko plangintza bat besterik ez da behar.

Zailtasunak (nire kasuan behintzat) gure uneak nola inbertitu erabakitzeko orduan izaten dira. Argi daukagu zer den benetan asebetetzen gaituena? Hobe da jarduera jakin bat aukeratzea ala hainbat aukera konbinatzea? Bakarrik edo lagunduta egingo ditugu? Beharrezkoa al da aisialdia programatzea ala denbora hori programatzeak berak baldintzatu egiten du denbora horren gozamina? ...

Ez dut uste neure denboraren kudeatzaile ona naizenik, ez behintzat inori lezioak eman ahal izateko bezain ona (ezta gutxiago ere), baina 10 hilabete daramatzat aurre-erretiroan, eta foro honetan zerbait idazteko eskatu didatenez jende gehiago parte hartzera animatzen ote den ikusteko, neure bizipena kontatzea bururatu zait aisialdiaren gai honi buruz, eta, garbi aurreratzen dizuet: gauza batzuetan asmatu egin dut (horietaz hitz egingo dut) eta beste batzuetan porrot (horiek isildu egingo ditut).

Hamar hilabete hauetan egin ditudan eta gehien asebeten nauten jardueren artean, lau daude nabarmen:

- Lehenengoa zortzi hilabeteko bilobarekin pasatzen dudana denboraz gozatzea izan da. Atsegin hutsa. Argi dago jarduera hau ez dela programatu daitekeen zerbait. Hau beste pertsona batzuen mende dago, baina baten bat itxaroten baldin badago, jakin dezala hor baduela mauka handi bat baliatzeko.
- Beste jarduera bat, oso asegarria, oinez ibiltzea izan da, lagunduta zein bakarrik (Santiago edo Donejakue bideko etapa batzuk ere egin ditut, eta berriro ekin diot hasi nuenetik 10 urte igaro ostean). Ibilaldi horietako askotan lankide ohiekin topo egin dut, eta oso une atseginak pasatu ditut eurekin. Askotan, «Batman»ekin ere ibiltzen naiz paseoan, nire alaba Idoiaren bulldog frantses beltzarekin, alegia. Batzuetan nik eramaten dut hura, eta beste batzuetan berak eramaten nau, baina ez dugu inoiz eztabaidatzen.
- Bidaiatzea beste erabaki on bat izan da. Gure agendan beti izan ditugun eta, hainbat arrazoiengatik, atzeratu egin ditugun bidaia horiek egitea. Orain da, pixkanaka, gure proiektu zaharrak gauzatzeko unea.
- Azkenik, denbora dezente eskaini diot entretenimendu berri bati: ortu edo baratzeari. Aurkikuntza handia izan da. Orduak konturatu barik pasatzen ditut, eta ahalegintzea eskatzen duen arren eta inbertsio guztia arrakastatsua ez bada ere, azkenean harrapatu egin nau. Izan ere, lagunei zure tomateak, porruak, piperrak, kuia edo kalabazak, babak, ilarrak, babarrunak, lekak eta abar oparitzea gogobetegarria da.

Zeure haziak izatea; landatzea; baratze-maila edo alor sakon bat, negutegi bat edo konposta egiteko instalazio bat eraikitzea; baratzea planifikatzea eta beharrezko txandakatzeak egitea; landare-elkarketarik onuragarrienak ezagutzea; landareak beste landare batzuekin sendatzea, heskai loretsuak sortzea, ortuari edo barazkien arerioak desagerraraziko dituen fauna onuragarria egon dadin...

Jarduera honetan hasteko ikastaro praktiko bat gomen datzen dizuet, bioeskola bbk-k Zamudion antolatu berri duena. Oso ondo aprobetxatutako lau goiz Mikel eta Carolekin. Horietan, nekazaritza ekologikoan hasten ikasten duzu, zeure ortu edo baratzea landuz, elikadura-ohitura osasungarriak eta lurrarekiko begirunea sustatuz.

Erakartzen nauten eta oraindik hasi ez ditudan beste jarduera batzuei ere eskaini nahi diet denbora apur bat:

– **Musika.** Batetik, nire gitarrari denbora gehiago eskaintzea. Bestetik, Portugaleteko «Los Barbis» taldean (2016an 50 urte bete zituen sortu zenetik), hainbat emanaldi programatzen ari dira, noizbait aldi batez taldean jardun zutenek —nire kasua da— parte hartu ahal izateko. Logikoa denez, emanaldiak prestatu egin behar dira, eta entseguak aurten bertan hasiko dira; beraz, alderdi hori ondo bideratuta daukat.

– **Lan boluntarioa.** Nire aisialdiaren zati bat jarduera solidario bati eskaini nahi diot, baina oraingoz ez dut ezer zehatzik erabaki, eta apur bat galduta nago kontu honetan.

– **BBK-ko Erretiratuen Elkartearen jardueretan parte hartzea:** Etapa berri honetan, alde batetik, guri eragin diezaguketen alderdi finantzario, juridiko eta fiskal garrantzitsuenen berri jasotzeko tresna erabilgarri eta interesgarria izatea espero dugu; eta, bestetik, zerbait ludikoagoa izatea, profesionalki urte askotan enpresa berean egon garenon arteko harremanari eusteko eta harreman hori areagotzeko.

José Luis Borgesek bere «Instantes» poeman zioen bezala (bada poemaren egilea beste norbait izan zela defendatzen duenik):

«Ni izan nintzen bizitzako minutu bakoitza zentzuz eta oparotasunez bizi izan zuen pertsona horietako bat. Noski, alaitasun-uneak izan nituen, baina **atzera egin ahal izango banu, une onak bakarrik izaten saiatuko nintzateke. Ez badakizue ere, horretaz egina dago bizitza, une edo momentuez bakarrik. Ez ezazu galdu oraina».**

Espero dut gogoeta edo hausnarketa hauek uneez, orainaz, gozatzeko helburura, hau da, gure denbora preziatutik ezer aurreztu gabe bizitza bizitzeko helburura, hurbiltzen lagunduko dutela, kasuren batean behintzat.

Eta bizi gaitezen, bi egun baino ez dira eta!

(1) Michel Endek 1973an idatzi zuen MOMO, eta, beraz, Denboraren Aurrezki Kutxaren (haren zuzendaritzakoan, “gizon grisen”, eta bezeroek erakundean gordailutzen zuten denboraz jabetzeko haiek zuten grinaren) eta duela gutxi Espainiako zenbait aurrezki-kutxarekin eta haietako buruzagiekin gertatutakoaren arteko edozein antzekotasun kointzidentzia hutsa baino ez da.





2 iraila, 2023 | por Fernando Urien

—Ixo! Zaude isilik! Kontuz! Ikusten duzu? Zure aita da hori.

Melindak egongelako alfonbraren gainean lasai zegoen txakurra seinalatzen zuen eskuaz, eta bitartean beste eskuko hatz erakuslea ezpainetara hurbiltzen zuen, semeak zaratarik egin ez zezan. Ricardok amari begiratu zion, gero txakurrari eta, txintik esan barik, esku artean zeukan historia-liburua irakurtzen jarraitu zuen.

—Gu zaintzen ari dira... Ez dakidala uste dute, baina beti ari dira gu zelatatzen.

Ricardok une batez ikasten ari zena utzi eta sofán eserita zegoen amari begiratu zion, gero liburura begiratu zuen berriro. Amak ilea nahasita zeukan eta begiak zabal-zabalik, larregi, bazirudien begi-globoak betazaletatik aterako zitzaizkiola, eta "Turko" txikiari begiratzen zion etengabe, eta hark, belarriak tente, burua altxatzen zuen etxe-koandrea begira zegokiola sumatzen zuenean. Emakumea zakar mugitzen zen sofaren alde batetik bestera. Noizean behin, jaiki eta leihora joaten zen. Buruaz keinuak egiten zituen eta eskuekin espantutak kristalen aurrean, bere burua ikusarazi nahian, oinezkoek jakin zezaten berak bazekiela zer nolako kontu isilpekoak zituzten haiek.

—Nik esango dizkiet lau gauza. Uste dute ez dakidala...

Gero semearengana hurbildu zen. Semeak keinu ozpin-du batez hartu zuen. Ekonomiaren Historiako azterketa zuen, eta amak ez zuen bakean uzten. Hala ere, ez zion agiraka egin. Etsita zegoen ile harroko bizikidea han izatearekin. Ama belarrira hurbildu zitzaion xuxurlaka:

—Mikrofonoak jartzen dituzte guri entzuteko. Lau gauza esango dizkiet. Nik ez baneki bezala non dauden...

Melinda egongelatik irten zen. Ikasle gazteak amari begiratu zion korridorean aurrera isilgordeka alde egiten zuen bitartean. Handik gutxira, ahotsak entzun ziren atzeko gelan, sukaldetik harantzago dagoen gelan. Amaren oihuen oihartzunak etxean zehar barreiatzen ziren, arrazoimenari ihesi zebilen mamu baten kate-hotsak bezala. Ricardok, belarriak eskuez estalita, ukondoak mahai gainean finkatu zituen ikasten jarraitzeko asmoz. Ezinezkoa gertatzen zitzaion. Zutitu eta ama paretekin berbetan ari zen gelako atea itxi zuen. Gero, egongelakoa itxi eta liburua hartu zuen berriro. Txakurrak burua alfonbraren gainean pausatu eta belarriak makurtu zituen. Isilune bat izan zen gela har-

tan. Amasten zen lasaitasunaren lekuko zen erlojuaren tiktak mutua. Mutila lasaitu egin zen liburuko orriak patxadaz pasatzen zituen bitartean. Zakurra atera hurbildu zen eta bultza egin zion hankaz; ireki egin nahi zuen. Euriak gogor jotzen zuen leihotetan. Ura kristaletan behera irristatzen zen, erorketa bertikaleko errekasto txiki eta gardenak balira legez. «Turko», egon gelako atetik aldenduz, sofara igo zen, han uzkurto eta begiak itxi zituen.

Bat-batean, Melinda zakar sartu zen eta bila hasi zen, gelaren alde batetik bestera, txakurra sofa gainean ikusi zuen arte. Keinu azkar eta zakarrez, urduri ageri baitzen, semearengana oldartu eta galdetu zion:

—Zer esan dizu Sergiok? Badakit nitaz jardun duzuela nire atzean. Uste duzue ez naizela konturatzen. Tenteltzat naukazue, ala?

Nahiz eta liburuek etengabe eskatzen zioten arreta, mahaitik jaiki zen mutila, eta baso bat ur eta pilula bat eskaini zizkion amari, ahotsa ozenduz esaten zion bitartean:

—Hartu pastilla hau!

—Zer esan duzue nitaz?

—Aita hilda dago! Duela urtebete hil zen!

Gero pastilla ahora hurbildu zion. Amak errefusatu egin zuen, aurpegia albo batera jiraturaz. Ricardok aire-ahokada handi bat hartu eta beso batez eutsi zion amari, bestearekin pastilla hortz artean sartzen saiatzen zen bitartean. Melindak indarrez itxi zituen ezpainak eta ebakortzak estutu zituen ez hartzeko. Gogor mugitu eta gorputz osoarekin kontra egiten zion. Indarrez bultza egiten zion semearen eskuari sendagaiari uko eginez. Mutilak, bere onetik aterata, amaren eskuari heldu zion, eta ezpainak behartu zizkion berriro, eta hain bortitz indarka eginez, lurrera erori ziren biak. Pastilla sofaren azpira joan zen, eta edalontzia alfonbra gainera isuri zen. Ricardo egindakoaz damututa zutitu zen eta amari lagundu zion zutik jartzen. Amak bortizki errefusatu zuen semea, zera aurpegiratzen zion bitartean:

—Ez dut hori inoiz gehiago hartuko! Har ezazu zeuk!

Gero, zutitu eta "Turko" zegoen sofara hurbildu zen, eta, txakurra seinalatuz, oihu egin zuen, eskuekin espantuka jardunez animaliaaren aurrean:

—Zu!, Sergio zara, ezta? Ni ez nauzu engainatuko!

Txakurra seinalatzen zuen besoak gora eta behera zakarki astinduz. Halako imintzio eta keinuen aurrean, lasai zegoen animaliak jauzi egin zuen sofatik, eta zaunka egin zion etxe-koandrearari, amorruz betetako letaginak erakusten zizkion bitartean. Emakumea, izuturik, besaulkiaren gainera erori eta bertan uzkurto zen, burua besoez estaltzen zuen bitartean. Zakurrak zaunka egiteari utzi zion, belarriak jaitsi eta goitik behera dardarka zegoen etxe-koandrearengana hurbildu zen. Ricardok, ama besaulkian uzkurturnik, eskuak garondotan gurutzatuta burua estaltzen eta dardarka ikusi zuenean, lehenago aitak garrasi egiten zionean egiten zuen bezalaxe, pastilla eta baso bat ur hartu, harengana hurbildu, besoak aurpegitik leunki kendu, masailan musu bat eman eta bularraren kontra estutu zuen, amak pilula hartzen zuen bitartean.

MANDAR TXIKIA

23 iraila, 2023 || por Carlos Ruiz de Villa



Bazen behin nekazari bat, belardi berde eta polit bat zuena, eta maiz ibiltzen zen bertan paseatzen. Egun batean pentsatu zuen han zerbait falta zela belardiari animazio eta bizitza gehiago emateko. Etxera iristean emaztearekin hitz egin zuen, eta bien artean feriara joan eta behor polit eta indartsu bat erostea erabaki zuten. Esan eta egin, feriara joan ziren, eta, han zehar buelta batzuk eman ostean, kanela-koloreko behor eder bat ikusi zuten, gainera bi urteko behorkume bat zuena. Izugarri gustatu zitzairen eta erostea erabaki zuten, baina, jakina, zelan erosiko zuten ama eta alaba han bakarrik utzi? Beraz, nekazariak emaztearekin berba egin zuen berriro eta biak erosi behar zirela erabaki zuten. Amari 'Kanela' deitu zioten eta alabari 'Gris', ilea apur bat grisaxka zuelako. Abeltzainari diru dezente ordaindu eta baserrira eroan zituzten.

Biharamunean, belardira eroan zituzten, eta han batera eta bestera korrika eta lasterka, zuhaitzei, bitxiloreei eta landa berde osoari bizia ematen zieten. Belar freskoa jan eta euriaren ura batzen zuen bainuontzitik ura edaten zuten, indartsu eta osasuntsu haziz.

Egun batean, abeltzain batek astar txiki bat eta beste bat zaharragoa eskaini zizkion, akordio batera iritsi, tratu itxi eta gure baserritarrak erosi egin zizkion. "Baina zer egin orain astoekin? Non gordeko ditugu?" galdetu zion bere buruari. Berriro hitz egin zuen emaztearekin eta hark esan zion: "Non hobeto belardian behorrek baino?". Hurrengo egunean, nekazariak astarrak belardi berdera eroan zituen. Belardia, gainera, oso zabala zen eta belar asko zuen, han denentzat, behor eta astoentzat, zegoen janaria. Egunak igaro ziren, eta bakoitzak bere kasa egin arren bizitza, behorrek alde batetik, astarrek bestetik, elkarri enbarazurik ez egiteko, noizean behin elkarrekin ibiltzen ziren jolasean eta lasterka. Denak pozik zeuden, eta harmonia egoki eta politean bizi

ziren, belar onaz eta landa eta itsasoari begira zituzten ikuspegiez gozatzen.

Hara non egun batean baserritarrak esan zien bere semeei: "Behor gaztea hazitarako zaldi batekin gurutzatzera eraman beharko litzateke, kume eder eta polit bat izan dezan". Han joan ziren mutilak zelaira behorak ikustera. Eta a zer ezusteko! Behor gaztea ernari zegoen, kumea egiteko, eta ez hori bakarrik, haren ama ere bai!

Ama eta alaba ernari, "Nor izan ote da?" esan zioten elkarri. Bakarra izan zitekeen. Astar nagusia! Bestea oso txikerra baitzen oraindik.

Beraz, astar kaskarin batek ernari utzi zituen bi behorak, ama eta alaba. Ondorioz, lehenik mandar txiker eder eta arin bat jaio zen, itxura dotore eta harroxkoa zuena. Eta belardi berean bizi izan ziren amona Kanela, hiru urteko ama Gris eta hilabete gutxiko mandar txiki dotore eta harroxkoa. Egun batzuk geroago, beste mandar txiker bat jaio zen, amona Kanelaren ernaldiaren ondorioz.

Orduan, mandar txiki bilobak anaiorde bat zuen aitaren aldetik, aldi berean bere ama Grisen neba zena, hau da, bere osaba ere bai. Eta astar kaskarina, bere aita izateaz gain, aldi berean bere aitonaordea ere suertatu zen.

Halako nahasketaz nekatuta, baserritarrak saldu egin zuen astar kaskarina, astar txikiarekin geratu zen baina beste zelai batera eraman zuen eta behor eta mandar txikerrengandik bereizi zuen. Azkenean denak pozik, bakoitza bere etxean, denak batera baina ez nahastuta.

Bizitzak batzuetan horrelako opari hauekin harritzen gaitu, Ama Lurraren eta bere Naturaren indarraren ondorioz. Dena ez dago idatzita, lur asko eta bizitza asko dago idatzeko.

Mandar txiker dotore, arin eta harroxkoa asko hazi zen eta bizitza ona eta polita izan zuen



**Asociación de personas jubiladas
y pensionistas de la BBK**

Príncipe kalea, 5. 505 saila
48001 BILBO

Tel. 94 425 57 96
asojubibbk@gmail.com
www.asojubibbk.es

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral